

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1993ko maiatzak 7

191. zenb.

San Juanak  
**Ikuskizun  
harrigarria**

Elkarrizketa  
**Eduardo  
Rodriguez  
brasildarra**

**Olaz Muruamendiaratz**

# Merkatarien zerbitzura





# TXANDAK

2 Txanda izango dira.

1. Uztailaren 5tik-16ra.
2. Uztailaren 19tik-29ra.  
(asteburuak ezik)

**INSKRIPZIO - EPEA:**

**Maiatzaren 3tik 21ra**



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ


jatetxea!



GATZAGAN

**ARAMAIO**  
**okindegia**
**Maisu Guridi, 3**  
**Tfnoa: 79 36 46**
**VE ECUADOR**
**Bidaiak**

 Kontzeziño, 2  
 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 14 06

 Aldizkari honek  
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
 laguntza jaso du

 Aldizkari honek  
 Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
 Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Herrietako jaiak

**U**rte batzuk atzera eginez gero, osos zirrara bereziaz gogoratzen ditut nire gaztearoan emandakoak, hainbat herritako jaietan; nire bizipen ederrrenetarikoa direla esango nuke.

Azkenengoko 10-15 urte hauetan, gauzak erabat aldatu dira eta sasoi onenean ez gauden arren, oraingo eta orduko egoera sozio-ekonomikoez ez dute zerikusirik. Aldiz, jai egitarauak konparatzen hasiko bagina, ez dut uste halako desberdintasun handirik topatuko genukeenik: gaztelu puzgarriak, ???, akaso bai ugaritasunaren aldetik, baina ez dut gogoratzen aparteko berrikuntzarik.

Jakina jaien antolakuntzat udaletxerari eskatzen dion dirutza handia dela, eta orain ere atal handienetarikoa musika taldeek eramango dutela jokatu nuke.

Garai hartan taldearen izena erabakiorra izaten zen alde batera edo bestera egiteko orduan, salbuespen batzuk kenduta, noski, herri batzuetatik "hatzamarrez" bueltatzea ez baitzen batera erraza, Oñatitik esate baterako.

Orain aldiz, berdin da puntakoena edo sunsunkorda ekartzea, plazan ume eta gaztetxo mordo bat eta ikusle batzuk, eta ordu batetik aurrera inor ere ez. Beraien lansaria ziurtatu arren, ez dut uste egoera horrek asko poztuko zituening.

Garai hartako plaza betekadak eta Kiroldegiko, Iturripeko edo Zaldibarrereko dantzaldi itxiak, hain arrakastatsuak zirenak, bukatu ziren. Horiek ziren neska mutilen arteko harremanak hasteko genituen bideak. Orain, aldiz, tabernak dira topaleku, aste bururo "topera" egoten dira, jaietan berriz "inpraktikable", ezinezko, bihurtzen dira.

Azken aldi honetan bada kezkarik, edo gutxienez zaratarik, alkohola dela eta ez dela, hainbat eztabaida eta istilu gazte eta udaletxekoen artean jaietako ekintzak antolatzeko orduan, gaupusak direla eta ez direla...

Denok ezagutzen dugu gauak duen xarma eta orduan konturatu gabe pasatzen direla bat gustora dagoenean. ez dut uste nik ordu txikietan etxeratzeak mozkor egotearekin edo portaera "basati" batekin derrigorrezko lotura duenik: burugabe eta errespetubakoak unibertsalak dira, izan dira, eta izango dira. Baina mesedez, ez dezagun generalizatu.

IHINTZ



## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 - ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitateak:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Gokolea, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS  
paper ekologikoan egiten da.

**Azaloko argazkia:** Joseba



## ZENBAKI

Aholkularitza

**Kontabilitatea**  
**Fiskalitatea**  
**Lana**  
**Juridikoa**  
**Finantzaketa**  
**Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 12 39

# Memesa

## 79 42 22

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

### Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkun berreziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

## Maiatzaren lehen produktio garbiaren alde

**D**eba Garaian langilegoak dituen arazoak asko dira. Enpleguak desagertzeko arrisku handia dago. Baina hori ez da enpresariet natura ez kutsatzeko diru asko gastatu dutelako, baizik eta, diru gehiago poltsikoratzen dutelako. Horrexegatik maiatzaren lehen inguratzen doala, langilego, sindikatu eta enpresariet, naturaren alde ahaleginak egin dezaten, dei berezi bat egiten diegu.

Euskal Herrian ez da entzuten produktio garbiaz hitz egiten. Gure agintari eta enpresariet honen esanahia ez dute ezagutzen, hala ta guztiz ere, badago jendea, pixkanaka-pixkanaka enteratzen doana.

Naturaren barnean bizigaren guztion astean konexio lotuak daudela, konturatu behar dugu gizakiok. Mikroorganismo txikienetatik hasi eta bale urdin eta handira heldu arte. Gaurko gizarte industrializatuan, naturarekin lehen genituen erlazioak moztu egin ditugu. Errekurtso naturalak onura ekonomikoa lortzeko menperatzea eta gestioatzea, da helburu bakarra. Kontrolik gabeko jokaera hauek egoera larrira garamatzate.

Gure Lurra suntsitzen ari da; Negutegi efektua (efecto invernadero) handituz doa, errepide eta autopista berriek gero ta kotxe gehiago ibili arazten dutelako, "erabili eta botatzeko" gauzak kontsumi-

tuz ingurunea zabortegei handi bat bihurtzen ari garelako, eta plaga akatzeko balio duela esaten duten produktu kimikoen eraginari esker, lurra, urak, pertsona eta beste abereak pozointzen ari garelako.

Gure Lurraren aurkako joerak bukatu egin behar lirarteke. Horretarako, produktioarekin zer ikusia duen erabaki bakoitzean, ingurunea kontuan hartu beharra dago. Gizartearen premiak, ekosistemaren oreka mantenduz bete beharko dira.

Esaten dugun hau egiteko, aldakuntzak eman beharko dira gizakiaren ekintza, joera eta planteamenduetan. Aldakuntza hauek gizakiaren zereginen arlo gehienetan gertatu beharko dira: janariak lortzerakoan, ura banatzerakoan, energia banatzerakoan, gauzak egin eta garraiatzerakoan... Hitz batean, edozein aktibitatearen prozesuak ez du ezer kutsatu behar, begi aurrean izanik dibertsitate naturala mantentzea. Lehengaiak berriztagarri eta berrerabiltzeko gai direnak erabili beharko dira eta energia, lurra, ura... ahal den neurriak, ez dira alferrik gastatu beharko.

Produktu berriak merkatura ateratzen direnean, zer premia soziali erantzuten dioten argi eta garbi egon beharko luke.

Enpresa zahar eta berriei Europan zehar egiten diren beharrezko ingurugiro auditoriak egin lekizkieke urtero. Ingurugiroarekin zerikusia duten baldintzak betetzen ez dituztenak, lehengo ondorio bezala, itxi edo isun gogorak jasan beharko lituzkete.

Hemen esaten duguna ez

da erraza praktikan jartzea, baina, gure ostean datozen belaunaldiei merezi duten bezalako Mundua utzi nahi badiegu, derrigorrezkoa da.

**MIKEL OLABE**

## Etorkizuna borrokatu

**E**skoriatzako Irakasle eskolako ikasleek, Jarraik egindako konbokatariari erantzunez, Borroka Eguna egitea erabaki dugu, apirilak 30ean. Gaur eguneko egoera sozio-ekonomiko kezagarria salatu nahi dugu:

- Deba Garaian populazio aktiboaren % 12 langabezia dago eta hauetatik % 65 gazteok osatzen dugu.

- Hego E.H.n 250 lanpostutik gora galtzen dira egunero.

- Hego E.H.ko lantegietatik % 30 enplegu arauketan aurkitzen dira.

- Euskal industriari 1986tik aurrera jasan zuen lehenengo birmoldaketa zigorraren ondorioz galdu zituen 170.000 lanpostu eta gero berri ere bigarren birmoldaketa latza inposatu nahi digute.

Hau dela eta, asanblada burutu ondoren borroka eguna aurrera eramatea erabaki dugu, pankartak, prentsa komunikatuak, informazio kartelak eta deitua dagoen manifestaldian parte hartu.

**ESKORIATZAKO IRAKASLE  
ESKOLAKO IKASLEAK**

# MENDI taberna

## Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

# Dendak jai egunetan zabaltzeko normatibarekin ados zaude?



**Angela Bergaretxe Zabala oinetakoak**  
(73 urte)

Oso konforme nago oraingo ordutegiarekin eta ez nuke nahi jai egunetan ere zabaldu behar izatea.



**Luis Barruetabeña Arrasate Optikakoa**  
(43 urte)

Txarto iruditzen zait. Oraingo ordutegia aldatu egingo dut udan, goizean beranduago zabaldu eta arratsaldetan beranduago ixteko, baina jai egunetan itxi egingo dut



**Frantziska Alonso Luko erropak**  
(32 urte)

Larunbatetan zabaltzen dugu, baina igandeak jai egunak izan dira beti eta hobe horrela jarraitzen badute. Beharrezkoa izango balitz, gustora zabalduko nuke denda igandeetan.




**Tobias Hernandez Meher dendakoa**  
(43 urte)

Orain dugun ordutegia nahiko normala da, ez nuke aldatuko. Jai egunetan zabaltzeko normatiba horrekin, denda txikiak dira kaltetuekan; gutiz kontra nago.



**Tere Oianguren Ontzi dendakoa**  
(46 urte)

Eta noiz deskantsatuko dugu, bada? Guztiz kontra nago. Gustora nago orain dudana ordutegiarekin, nahikoa da.



**Mario Ugarte Suministros Ugarte**  
(53 urte)

Konforme nago orain dudana ordutegiarekin, baina ez igandetan zabaltzeko norma horrekin, oso txarto iruditzen zait.



**M<sup>a</sup> Eugenia Etxenagusia Agirretxe dendakoa**  
(44 urte)

Oso gaizki iruditzen zait. Guri oso gaizki datorkigu. Astean egun bakarra dugu jai hartzeko eta bertan deskantsatzen ez badugu... Besteek ere egun bat jai izaten dute.



**Jabier Mailabiabarrena Areitio kirolak**  
(46 urte)

Uste dut nahikoa dela astean dugun ordutegiarekin; nahikoa ordu egoten gara hemen, zertarako gehiago?

• **Txitxinpe** •

**Berezitasunak:**  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**HIRE**

Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**LAURA**

**GAZTE MODA**

Erdiko kale, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 57 20

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Igalatorioa ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 ..... 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 71 44 52  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**Mai urak**  
 Urak (idal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 79 78 44  
 ..... 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 7**  
 Egunez: Morales, San Andres.  
 Gauzez: Mozos, Pedro Deunaren.

**Larunbata 8**  
 Egunez: Azkoaga, Ferrerías.  
 Gauzez: Camacho, Oxirondo.

**Igandea 9**  
 Egunez: Español, Iturriotz.  
 Gauzez: Camacho, Oxirondo.

**Astelehena 10**  
 Egunez: Corcuera, Musakola.  
 Gauzez: Puy, Barrenkale.

**Astearte 11**  
 Egunez: Inzar, Erguin.  
 Gauzez: Guallar, San Antonio.

**Asteazkena 12**  
 Egunez: Amezua, Santa Marina.  
 Gauzez: Estella, Matxiategi.

**Osteguna 13**  
 Egunez: Ruiz, Maala.  
 Gauzez: Mozos, Pedro Deunaren.

**7 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Maridos y mujeres" (7,10)

**ANTZERKI IHARDUNALDIAK**  
 "Klownferencia" antzerki taldearen emanaldia. Gaueko 10etan. Elorrioko Kafe Ate-neon.

**ANTZERKIA**  
 Trapu Zaharra antzerki taldearen "Visto y no visto" antzes-lana. Arratsaldeko 7etan, Aretxabaletako Durana kalean.

**MUS TXAPELKETAKO FINALA**  
 Mus txapelketako finala: Torrepe eta Leintz elkarrean ar-tean. Arratsaldeko 6.45etan. Alkartu elkarrean. Ondoren afaria.

**8 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Sommersby" (5,7.30,10)

**JAI ZALEKO JAI**  
 Jai Zale elkartearen urtebetetzea. "Pitxones" taldeen kontzertua. Arratsaldeko 6etan. Jai Zale elkartearen.

**ARRASATEAR BATEN ESPERIENTZIA GANBIAN**  
 "Arrasatear baten esperientzia Gانبian" izeneko hitzaldia, diapositiba emanaldia, bertako musika. Emalea: Jabi Tramon. Arratsaldeko 6etan, AEDko lokalean. AEDko Gazte Mobidak antolatuta.

**MANIFESTAZIOA: EUSKAL PRESOEN DEFENTSAN**  
 Euskal Presoen defentsarako manifestazioa. Arratsaldeko 6etan. Herriko Enparantzan. Arrasateko Anmistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta.

**9 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Sommersby" (5,7.30,10)

**HERRI URRATSERa AUTOBUSAK**  
 AED eta Beinkek antolatutako autobusak. Irteera: goizeko 8etan Garibai geltokitik. Prezioa: 950 PTA. Izena eman behar da aurrez.

**OTALA-ZELAI KROSS HERRIKOIA**  
 XV. Ojala-Zelai kross herrikoia. Hasiera: goizeko 10etan. Mailak: benjamin, abelin eta txikiak.

**LOURDESera ERROME-SALDIA**  
**Maiatzaren 21, 22, 23 eta 24ean Lourdesera egingo den erromesaldian parte hartzeko interesa duten guztiak zabalik dute izenak emateko epea. San Juan Bataiatzailearen Parrokiara zuzendu zaitezke interesatu guztiak.**

**SALSA IKASTAROAK**  
 Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak salsita ikastaroa antolatu du. Datorren maiatzaren 17tik 28ra bitartean emango dira klaseak astelehen, asteazken eta ostiraletan. Arnaldo Patterson izango da irakaslea. Izena emateko Musakolako Kiroldegira zuzendu zaitezke. Prezioa 2.000 PTAkoa da eta plaza mugatuak direnez, izena lehenbaitlehen ematea gomendatzen da.



**ALAI ZINEAN: SOMMERSBY**  
**Amerikar zineak berriz ere zine frantziarra hartu du eredutzat eta oraingo honetan "Martin Guerren itzulera" izeneko bertsiio amerikarra egin digute. Kasu honetan, Richard Gere eta Jodie Foster dira pertsonaia nagusiak eta jadanik urteko bikote erromantikoena kontsideratu dira. Emakumeak bere aurpegia, ezaugarriak, ahotsa ezagutzen zuen, berataz dena zekien... egia ezik.**

**10 ASTELEHENA****ZINEA**

"Sommersby" (7,9.30)

**OSASUNARI BURUZKO IHARDUNALDIAK**

Santa Marinako Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak osasunari buruzko ihardunaldiak antolatu ditu. Pasa den maiatzaren 5ean hasi eta maiatzaren 27an bukatuko dira. Hilaren 12an, 13an, 19an, 20an eta 27an hitzaldi desberdinak egongo dira. Guztiak arratsaldeko 4etan izango dira Zentruan bertan. Interesatu guztiak daude gonbidatuta hitzaldi hauetara.

**IKASTAROA: DANBORRAK ETA AKUARELAK**

Maiatzaren 14tik 16a bitartean, Nafarroako Saroiberri de Etxalar baserrian danborrak eta akuarelak izeneko ikastaroa burutuko da. Akuarela munduan sartuz, paisai ederrak egin eta korolea landuko da. Eguna luzatuz joango dela eta, tanborra joteko ere egongo da denbora. Iñaki Bruña mondrauetarrak zuzenduko du ikastaroa. Izenak emateko 79 80 25 telefono-ra dei egin.

**11 ASTEARTEA****ZINEA**

"Sommersby" (7,9.30)

**HITZALDIA: IKUSPEGIAK ZABALTZEKO PROIEKTU BAT**

"Ikuspegiak zabaltzeko proiektu bat" hitzaldia. Emalea: Tomas Ariceta, Adegiko lehen-dakaria. Arratsaldeko 18.45etan. Eskola Politeknikoan.

**DIPOSITIBA LEHIAKETA**

**Arrasateko Ikarus taldeak "Zerua eta Kirola" gaiaren inguruan diapositiba lehiaketa antolatu du. Parapente, delta eta orokorrean airean praktika daitezkeen kirol desberdinak har daitezke gaitzat. Maiatzaren 31a baino lehen aurkeztu behar dira diapositibak, Ikarus taldea, 215 postakutxa, 20500, Arrasate helbidera. Sari banaketa ekainaren 10ean egingo da, 8etan Monterronen. Irabazleak 10.000 PTA jasoko ditu, bigarrenak 5.000 PTA eta hirugarrenak 3.000.**

**12 ASTEAZKENA****HITZALDIA**

"Zirkulazio gorabeherak" izeneko hitzaldia. Emalea: Marisa Bonzas. Arratsaldeko 4etan. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.

**1993KO BAINUETXE PROGRAMA**


Jubilatu eta Pentsiodunei INSERSOK zuzenduriko 1993rako Binueixe Programa martxan dago eta martxo eta abuztua bitarteko txandetan parte hartzeko izena urtarrilean eman behar bazen, iraila eta abendua tarteko txandetan parte hartzeko interesa duzenok maiatzaren 31a baino lehen eman beharko duzue izena. Horretarako, Jubilatuen etxeetara zuzendu zaitezke.

**13 OSTEGUNA****HITZALDIA**

"Jubilazioak, pentsioak eta alar-guntza" izeneko hitzaldia. Emalea: ELA sindikatuko ordezkaria. Arratsaldeko 4etan. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.

**MERTZEDARIETAKO IKASLEEN AFARIA**

Mertzedarietako ikasle izan diren guztiei gonbidapena luzatzen zaie hurrengo maiatzaren 29an izango den afarian parte har dezaten. Izena emateko HIRE dendara zuzendu.

**AEDKO UDALEKU IREKIAK**

AEDko udaleku irekietan parte hartzeko interesa duten neska-mutiko guztiek zabalik dute izena emateko epea, maiatzaren 21era bitartean. Arrasateko 1. mailatik 8. mailarteko haurrek har dezakete parte eta bi txanda izango dira: uztailaren 5tik 16ra eta uztailaren 19tik 29ra. Ordutegia goizez 10etatik 13etara eta arratsaldez 3etatik 7etara. Konfidantzako giro batean euskararen erabilera bultzatzea da udaleku hauen helburua. Izen emateak ikastetxean edo AED elkartean egin daitezke. Prezioa 3.500 PTAKoa da.

“Gaurko errealitatea ikusiz, baserriaren benetako defentsarako beste lege batzuk ere ezinbestekotzat jotzen ditugu, esaterako, Lurralde Antolaketari buruzko Legea, lurpsailen bilketa edo lurren bankoak arautuko dituen edota baserri maiztertzaren Legea egokitzea, garbi baitago gaur egungo nekazaritzak beste produkzio-sistema batzuk behar dituela, bere betiko lurrez gain beste lur batzuk ere behar dituela — errentan hartu, trukaketak egin, kontzesio administratibo bidez lortu... — hobeto eta errazago produzitu eta ahaztu ezin dena, berez baserriarrak ez direnei ere baserrian instalatzeko aukerak emanaz, horretarako ordaindu ezingo lituzketen inbertsio-etara behartu gabe”.

**Maite Aristegik** 93-4-26

**egin**

“...baina ezin dut burutik kendu, ez ote garen, ekonomia eginkizunetarako abildade orokorrari dagokionez, geure buruari buruz normalean uste duguna baino gutxiago, pretentzioen orduan ‘hamalau’ garelakoan, ‘zazpi’ izan egiteko orduan, kreatibitatea, ahalegina, konpromezua eta lanerako gogoia eta bizkarra jartzeko ordua iritsitakoan. (...)

Lanaren etikarik, kontsumismo hedonistaren etikara pasatzea, gure artean indarkeriaren kultura ezarri da, arlo politiko hutsa gainditu eta haruntzago, kultura antienpresariala da nagusi, eta azken finean, ekimen pribatua den edozer gauza arbuiatzea, hiritarren bizimoduaren antolaketa publikoa onetsiz”.

**Alfontso Gorroñoegoitia**

**lanhida**

Antxintxika egiteak, “osasan ona eskatzen du, bihotza eta birrikak ondo samar izatea, luzaketa ariketak egitea, gimnasia apur bat, zapatila egokiak, jarraipena... Dena dela, ez dut inor konbentzitu nahi, baina bai zenbait gogora ekarri (...) Matxadoren beste hura: espaiolak — eta euskalduna ere bai, dirudienez — mespretxatu egiten duela ignoratzen duena”.

**Juan Martin Elepuru** 93-4-28

**egin**

## **Nolakoak dira 93ko udal aurrekontuak?**

**A**hal diren onenak, esan go nuke. Ezaugarri garrrantzitsuena, azken urteetan, behintzat Franco hil eta udalak era honetan eratu zirenetik, aurrekontua murriztu egin dela da, aurreko urtekoarekin konparatuta. Beharbada, hau da lehenengo urtea, baina ez azkenenagoa. Bi arrazoi nagusi daude. Diputazioetik lortzen dugun fondo foralاک klausula bat dauka: Diputazioak ez badu pentsatzen duen guztia errekaudatzen, gutxiago errekaudatutakoak udalei eragiten die, arrisku konpartitua deitzen diote horri. Horregatik, 60 milioi itzuli behar ditugu. Gainera, egoera ekonomikoa ikusita, udal honen sarrera zuzenak errekaudatzen arazo batzuk izango ditugu. Ondorioz, diru gutxiago izango dugu hainbat gauza egiteko.

Murrizketak egin dira, batez ere, planteamendu berrietan. Kultura arlotik edo hainbat arlotatik, egin dira planteamendu berriak, eta zera esan diegu askori: landu zer dagoen horren atzean, eta hurrengo urtean ikusiko dugu zer egin behar dugun. Gainera, enpeinua egon da gastu korrientearen kontrola egiteko. Adibidez, obra bat egitean, diru asko gastatzen duzu obra egiten, baina obra urtebetean egiten da, eta gastua bukatu egiten da; baina zerbitzu bat martxan jartzen baduzu, ia betirako jartzen da. Hor egin dugu kontrola.

Bestetik, kontuan izanda azaroaren lehenengotan hasi zela aurrekontuen prozesua, uste dut gehiegi luzatu garela, maiatzean baiakude. Eta hori zuzentzeko zerbait egin beharko dugu.



**Ino Galparsoro,**  
*Hazienda batzordeburua*



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

**Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55**



**Etxe aurrekaldeak txukuntzen**

Etxe aurrekalde edo fatxaden berrizte lanak hasi dira Erdiko Kaleko zenbait etxetan, baina baita Ferre-rias eta Iturriotz kaleetako etxeetan ere. Diputazioak emandako diru-laguntza batzuei esker egingo da etxeen aurpegi txukuntze lan hau. Lanok direla eta, zabor-bilketako kamioiek beren ibilbidea aldatu dute, gainera, inguruan: Gazte-luondo, Erdiko Kale, Portaloia, Zerkaosteta izango da ibilbidea orain.

**Industrialde berria Aretxabaletan**

Aretxabaletan industrialde berri bat irekitzeko lana daukate Aretxabaletako udalak eta Foru Aldundiak. Bainuetxen egongo litzateke industrialde berri hau eta bertan kokatu beharreko enpresak 'ekologikoak' izango dira, zerbitzu arlokoak edo kutsatzen ez dutenak. Beste industrialde bat badago dagoeneko Aretxabaletan: 30.000 metro karratu ditu, 60 enpresa eta 660 enplegatu daude lanean bertan.

**Funtzionarioentzako osasun asistentzia**

Arrasateko udaletxeko funtzionarioek osasun asistentzia berezitua izango dute hurrengo bi hilabeteetan, eta ez dira oraingoz gainerako langileek dauka-



**Zabartek gose greba utzi egin du**

Jesus Mari Zabarte preso arrasatearraren aldeko manifestaldia egin zen joan den igandean, eta 1.500 lagun inguru bildu ziren Arrasaten. Gose greban ia hilabate pasa du Zabartek Las Palmaseko Salto del Negroko espetxean, baina egoera oso ahul eta larrian zegoenez utzi egin behar izan du, bista ia galduta baitzeukan eta ez baitzen bere burua gobernatzeko gai ere. Bi urtetan egin duen laugarren gose greba honetan, preso bezala dauzkan giza eskubideak errespetatzeko eskatzen zuen.

ten Osakidetza zerbitzuan. Sasfal mutualitatearen kuotak, hala ere, langileek berek ordainduko dituzte, eta Udalak ez du Gizarte Segurantzaren kuota baino gehiago ordainduko. Proposamen hau onartu zen ostiraleko udalbatzan, EA eta HBren aldeko 8 botoez. PSEk funtzionarioak Osakidetza integratu alde eman zuen botoa eta EAJk Diputazioko akordioa apoiatu zuen: 2.500 pezeta baino ez zezatela ordaindu funtzionarioek. Azken proposamen hau izan zen udal langileen asanbladak apoiatutakoa baina ez zuen aurrera egin. Langileek zinegotzien jarrera kritikatu zuten idazki batean.

**Maltzaga-Urbinari buruz argibideak**

Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuak, Josu Bergarak, "herri eztabaida" agindu du Deba bailara igaroko duen Maltzaga-Urbina autopistaren inguruan. Eztabaidak "luzeak izango dira, era horretan lortuko dugu iritzi guztiak aintzat hartuko dituen komunikazio bidea", esan zuen Bergara sailburuak Gasteizko Eusko Legebiltzarrean. Une honetan 60 milioi PTA kostatuko diren ingurugiroarekiko eragin azterketak egiten ari da Jaurlaritzak. Autopista egiten bada, peajekoa izango da, baina bidesariak oraingo autopistenak baino % 65

**Lorategietarako irizpideak**

Joan den ostiraleko udalbatza edo plenoan ez zen batere eztabaidarik izan, udal funtzionarioen osasun asistentziarena salbu (ikus gorago). Gainerako gai gehienak urbanismo arlokoak izan ziren. Horietaz gain, herriko lorategiei buruzko erizpide orokorrak onetsi ziren. Erizpide hauen bitartez, lorategietako kostua jaitea espero du udalak.

**Dendariei laguntza**

Deba Garaiko mankomunitateak eta Eusko Jaurlaritzak komertzioarako Informatika plana eta inbertsio sustatze programa aurkeztu zuten astelehenean, eskualdeko 30 bat dendari- ren aurrean. Inbertsio programarekin, kredituak merkeago izan ditzakete, eta baita itzuli beharrik gabeko subentzioak ere. Bestetik, dirulaguntzak daude material informatikoa erosteko, eta horretaz gain, asistentzia zerbitzu bat eratu da, doako telefono batekin eta ikastaroekin. Ikastaro hauetariko bat, oinarrikoa, datorren astean Arrasaten emango da, astelehenetik asteazkenera.

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

Iturriotz, 7  
ARRASATE  
Tefnoa: 790467



JOSE GOMEZ PZ. DE ONRAITA \*

## Kalitate osoaren gestioa

**Orain** 50 urte, kontrolaren eta egiaztatzearen ikuspuntutik bakarrik begiratzen zen kalitatea, "kalitate kontrola" esaten zitzaiona baino ez zen eta arlo industrialari eta serieko produkzioari bakarrik ezarzen zitzaion. Ikusten duzueenez, kalitatearen kontzeptu aduaneroa zen, eta bertan, produktu batzuk pasatzen zuten onaren edo onargari denaren muga, baina beste batzuk ez.

50 urtetan zehar, gai horri prebentzioaren aldetik aurre egitea errentagarriago zela ohartu ziren adituak, hau da, produktuaren gorabehera, hutsa edo akatsa, hasieratik aurrikustea, gertatu baino lehen, edo bestela esanda, gauzak lehenengotik ondo egitea.

Teknika berri honekin, bi mugimendu nagusi sortu ziren: Kalitate-zirkuluak eta berriki, Kalitate Osoaren Gestioa.

Kalitate-zirkuluek 80ko hamarkadaren hasieran izan

zuten garrantzia eta borondatez osatzen ziren lantaldeak ziren, euren lan esparruan aurki zitezen produkzio edo zerbitzu-akatsak konponduaz joateko, arazoak aztertu, akatsak aurkitu eta neurri zuzentzaileak proposatzeko.

Kalitate Osoaren Gestioa, kalitate gorena lortzeko ahalgin guztiak martxan jartzeko gai den ideia motriz bihurtu da berriki. Kalitate Osoaren Gestioak, egiten diren produktuetan eta bezeroari eskaintzen zaion zerbitzuan "zero akats" esan nahi du eta kalitatea enpresaren gestioari dagozkion arlo guztietan. Ideia hauek apur bat gehiago matizatzuz, Kalitate Osoa honela definituko genuke:

- Lana hasieratik ondo egitea, akats barik, beraz.
- Alperrikako kostuak gutxitzea (kostu horien adibide bat, gehiegizko esistentziak dira).
- Prebentzioa, hau da, ara-

zoa, sortu baino lehen ekiditea.

- Bezeroen beharrei erantzutea. Bezeroa da beti produktuaren kalitatea juzkatzen duena, eta ez guk fabrikatzailer gisa, kalitatea baduela pentsatzea.

- Baliapide guztiak behar bezala administratzea, horregatik, enpresako guztiak dira kalitatearen erantzule eta ez produkzio departamenduekin erlazioatuak bakarrik.

- Eta azkenik, ideiarik garrantzitsuena eta bitxiena: Enpresako kide bakoitza, aurreko prozesuaren bezero da eta hurrengoaren hornitzaile, eta horrela, bezero-hornitzaile harremana enpresa barrura hedatzen da, bertakoen satisfazioa ere bilatuz edozein prozesutan.

Sarritan, inteligentzia eta energia pila handi bat alperrik galtzen da, langile askok euren lana egiteko moduari buruz iritzirik emateko aukerarik ez duelako, eta azkenean, eurak dira benetako adituak, egunero lan hori egiten ari direnak.

Kalitate osoak eraginkortasuna, konpetitibitatea, negozio handiagoa esan nahi du, eta beraz, edozein enpresaren inbertsiorik errentagarriena da. Eta bizitzan beti gertatu ohi denez, merezi duen edozer gauza, kosta egiten da.

**FAGOR ELECTRODOMESTICOS-  
EKO KALITATE OSOKO KOORDI-  
NATZAILEA**

(Erredakzioan itzulia)

## USTEAK USTE

### GERRA

**Nire lagun batek esaten du III. Gerra Mundiala funtzionarioen eta langabetuen artean izango dela. Broma da, jakina, baina badago zerbait horren atzean, halako mesfidantza bat lanik ez daukatenen edo lan "prekarioa" esaten den hori daukatenen artean funtzionarioekiko. Klase borroka modaz pasatuta dagoela diotene, klase kontzeptuak gaudituta daudela ere esaten dute batzuetan. Ba ez, oraindik badaude klaseak, eta akaso klasearteko marra nagusia hortxe dago: langabetu eta enplegatuen artean. Eta enplegatuen artean ere, dotoreenak zeintzuk? Funtzionarioak, dudarik ez.**

**Gerra hasten denean, bada, non jarriko gara kazetari gaisook? Langabetuen aldean, esango nuke nik (ETBkoak salbu?). Ofizio honetan eta, oro har, gaurko gazteriarren parte handi batean, lan fijoak espero duenik ez dago jada, kondenatuta gaude seguru aski, batetik bestera saltoka ibiltzera, listo izan eta adi egotera. Eta trintxerako bestekaldekoen negarrek gutxitan hunkitzen gaituzte.**

LUIS FERNANDEZ

- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**TXOKO TABERNA**  
*Eure berezitasunak pintxo  
eta mokau gozoak*

Otalora, 7 Tinoa: 79 20 10 ARRASATE



Aurrekontuaz gain, udal lanpostu batzuk adjudikatzeko arauak tratatuko dira plenoan.

## Aurrekontu murrizketa: garai ekonomikoaren ispilu

Ostiral honetako plenoan tratatuko dira, azkenik, 1993rako udal aurrekontuak. Udalak gastatuko duenaren diru kontuek berritasun bat badute aurten: iaz baino zertxobait gutxiago izango da, Foru Aldundiko aportazioak jaisi direlako batipat. Hurrengo urteetan ere, udalak biltzen dituen zergek eta Foru Aldundariarenek gora egiten ez badute, murrizketak edo, behintzat, gastu-kontrola beharrezkoak izango dira.

Azaroan hasi zen aurrekontuak erredaktatzeko prozedura luzea. Udal batzorde bakoitzak bere kontuak egin zituen, eta gero, beste batzorde berezi batean joan ziren kontu horiek eztabaidatzen, alderdi guztien parte hartze librearekin. Bileraz bilera, azkenean zirriborroa astearte honetan biribildu zen, nahiz eta alderdi bakoitzak seguru aski emendakin batzuk planteatuko dituen plenoan.

### Kritikak

Herri Batasuna, adibidez, parrokiaren eraberritzean udalak hainbeste diru jartzea-

ren aurka dago. EAJk AEKri subentzioa iazko kopurua berean uztea proposatzen du, eta Egunkariaren akziorik ez erostea. Bestetik, gabon-jaietan kale argiztapena jartzea nahi dute jeltzaleek. PSEk auzoetarako diru gehiago eskatzen du, eta erdarazko gehiagarrria eta albistegia izatea ARRASATE PRESS eta ATBn, laguntzen truke.

Emendakinen gorabeherak salbu, aipagarria da aurrekontu hauekin udalaren zorpetzea handitu egingo dela da: 455 milioiko kreditua eskatu beharko da aurrekontua biribiltzeko, hasieran pentsatzen zena baino 50 milioi garestiagoa. Gainera, aurreko urteko maileguen interesak 89 milioitik 126ra pasatuko dira, eta mailegu amortizazioa 55etik 91ra. Gastu handien artean, MCM erosteko 85 milioi destinatuko dira, eta Amaia antzokiaren azken birmoldaketetarako 80 milioi daude. (Atalez ataleko gastuak jakiteko, ikus erdiko gehigarria).


Bestetik, pleno berean, sei udal lanpostu adjudikatzeko arauak onartuko dira.

### Cerrajeran akordioa, baina...

Cerrajera enpresan akordioa lortu zen azkenean, baina UCEM korporazioaren beste bi enpresatan (Transformados Metalicos eta Roneo) langile kanporaketak hel litezke oraindik. Cerrajeran, 10 langile kanporatzea ezinbestekoa zioen UCEMek, baina bi asteko mobilizazioen ondoren (manifestaldiak, itxialdiak eta gose greba bat ere bai), akordioa iritsi dute langileek: bost langile indemnizazioaz joango dira lantegitik, eta beste bostak ez dituzte kanporatuko. Hala ere, langileen iritziz "borrokako lehen urratsa" baino ez da izan Cerrajerakoa. Orain, Transformados Metalicos ixteko arriskua da kezka nagusia, eta Roneoko espedientea. Bitartean, salatu dute langileek, Kursaalaz gain, beste kasino bat ireki nahi omen du UCEMek Bilbon.

### Lur industrialen kalifikazioa

Jaurlaritzako Hirigintza sailak egin duen Euskal Autonomi Elkarterko lurzoruen kalifikazioan, Arrasateko udalerrian lur industrialak 125 hektarea direla azaltzen da. Udalak, aldiz, beste neurketa bat dauka eginda: 150 hektarea daudela alegia. Hori dela eta, Jaurlaritzari iradokizuna bidaliko zaio, zuzenketa egin dezan bere kontuetan.



## EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE



91 elkarte dira gaur egun hitzarmena sinatuta dutenak.

## Hitzarmena: lan sakonagoa aurrerantzean

Euskararen erabilpena sustatzeko hitzarmena beste hiru urterako luzatu da. 1990ean, sortu zen hitzarmena, eta harrezkero 91 elkarte sinatu dute berau, euren arteko harremanak, idatzizkoak zein ahozkoak, euskaraz izateko konpromezua hartuz. Sinatzaileen artean, alderdi politikoak, ikastetxeak, kirol eta kultur elkarteak, enpresak eta Arrasateko udala bera daude. Asteazkenean, Monterronen egindako ekitaldi batean sinatu zen luzapena. Lehenago, Donostian aurkeztu zen hiru urteen balantzea.

Hiru urterako plangintza bat izan zen hasieran, eta luzapena erabaki da orain,

emaitzak oso onak izan direlakoan.

Aurrerantzean, gainera, entitate bakoitzarekin lan sakonagoa eta zuzenagoa egiteko asmoa dauka Jon Zuazabeitiak, Hitzarmeneko teknikariak. Egoera linguistiko desberdinak daude elkarteen artean, eta horregatik, lehenik eta behin, zer egin daitekeen neurtu, helburuak markatu, eta horiek betetzeko laguntza eta bitartekoak jarriko dira.

Horrez gain, AED taldetik proposamen bat iritsi da, entitate desberdinetako jendea bildu eta lan-talde eragile bat osatzeko. Lantalde hori Hitzarmenaren norabide eta emaitzen gainean egongo litzateke.

## San Andresen konponketak

San Andres auzoko eraberritze planetan, ostegunean etxe batean igongailu bat ipintzeko eta horiei isolamendua jartzeko lanei ekin zioten, Foruen enparantzan. San Andreseko 60 bat etxek behar dituzte horrelako lanak, eta horregatik esperientzia pilotoa da hau. 30 urte dauzkaten etxeak dira, eta zaharkituak daude. Konponketak bizilagunek ordainduko dituzte, kreditu subentzionatuekin.

## Zabor bilketa zaintzen

Arrasateko bizilagunek zaborra etxetik behar bezala ateratzen duten zaintzen ari da Udaltzaingoa. Jende askok ez ditu errespetatzen ez ordutegia, ez zaborra biltzeko guneak, eta aste askotan zehar denuntzia ugari jarri dituzten arren, zein eragin txikia izan duten ikusita, orain 10.000 PTAko isunak jarriko dituzte. Bestetik, Gaztetxearen inguruan jendeak zaborra uzten duela salatu dute Gaztetxeoek.

# FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



## JOSU

TXOKOLATEGIA  
KAFETEGIA

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66



**Alkoholarekin arazoak dauzkazu?**

**Agian,  
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!**

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38



Alderdietako hizlariak ehun bat entzule bildu zituzten SFX ikastolara.

## Ikastolak, sare pribatu edo publikoa aukeratzeko zorian

Maiatzaren 25 da Hezkuntza sailak ikastolei jarri dien epe-muga sare publikoan ala sare pribatuan sar ditezten erabakitzeko. Gure inguruan ere, ikastolek (San Viator, San Frantzisko Xabier, Almen eta Umezaintza) azken unera arte atzeratuko dute erabakia, orain ematen ari diren negoziaketa etengabeak zertan geratzen diren ikusteko.

Aukera guztiak baloratzeko, astelehenean, mahaingurua antolatu zen San Frantzisko Xabierren. EA (Belen Maiza), EAJ (Itziar Alba) eta HB (Anton Izagirre) azaldu ziren, eta PSE gonbidatuta zegoen arren, muzin egin zioten joateari. Entzuleen artean, ehundik gora lagun, guraso eta irakasleen

artean. EAJko ordezkariak eskola publikoaren legea "oso lege ona" dela esan zuen, eta administrazioak dirua jartzen duenez, kontrola ere egon behar dela zehaztu zuen.

EA eta HB oso kritikoak izan ziren. "Ez da lortu kontsentsu edukatiboa edo politikoa, bereziki ikastolena", esplikatu zuen Maiza EAKoak. Bere iritziz, euskararen arloa ere kili-kolo uzten du legeak. HBko Izagirrerren ustez, legea "PSOEn eskutik dator", eta bere helburua "ikastolak tartetik kentzea da". Horren aurrean, ikastolen arteko bateratasuna eta elkartasuna oso garrantzitsuak direla esan zuen HBko ordezkariak.

## Hilerriko obrak martxa onean

San Kristobaleko hilerriko obren ziuertagiri batzuk onartu ziren aste honetako udal gobernu batzordean. Dagoeneko 356 milioi gastatu dira lan honetan, eta nahiko aurreratu dago lehen fasea. Proiektua apurtxo bar atzeratu egin da, baina uda baino lehen ireki ahal izango da. Lehen fase honetan, bi panteoi modulo eta nitxoen eremua zabalduko dira. Bigarren fasea, bikoiztu egingo da hilerriaren zabalera.

## 'Bidegorri' posible bat

Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat lan bat egiten ari den Urbiker enpresak, ea txirrindularientzako bide bat edo bidegorri bat nondik pasa zitekeen herritan zehar galdetu dio Arrasateko Udalari. Udalak aspaldiko Maltzaga-Gasteiz trenbidearen bidea a proposa litzatekeela erantzun du, baina bertan txirrindulari biderik egingo denik ez da segurua oraindik, Diputazioak erabaki beharko du.



Parques  
y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



**Garagartza auzoko Iturralde baserrian Mora izeneko behiak birkiak izan zituen pasa den astean. Bitoriano Etxagibel baserritarrak inoiz ez du halako kasurik ezagutu bere baserrian. "Oso sorpresa handia hartu nuen eta bi izateko, oso handiak dira txahalak, ez dut inoiz halakorik ikusi" esan digu iribarrez.**



Aurten ere maiatzaren lehenarekin bat, San Andres auzoko jaiak ospatu ziren pasaden asteburuan. Eguraldiak ez zuen asko lagundu, baina antolatutako ekintza desberdinetan jende ugari bildu zen, gazteak, helduak eta umeak.



Epelde


Jose Mari Elorza eta Alex Acosta aretxabaltarrak martxoaren 19an ezkondu ziren eta ezkon bidaiari Canariasen egon dira. Pruden Iraeta eta Josune Gutierrez arrasatearrak berriz, apirilaren 3an ezkondu ziren. Bikote biak ere bueltan izango dira jadanik. Zorionak!

**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**Plus Ultra  
taberna**  
Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

**URRATS**  
**AHOLKULARITZA**  
GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**  
Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65



▲ Aitor Arostegi, 10 urtekoa izan da, AEDko Udalekuetan parte hartzeko izena eman duen lehen umea. San Frantzisko Xabier ikastolan 4. maila ikasten du eta iaz ere Udalekuetako bi txandetan hartu zuen parte. Animatu besteok ere, maiatzaren 21a bitartean zabalik duzue epea eta.

► **San Frantzisko Xabier ikastolako seigarren mailakoek Pagoetako ingurune eskolan bi egunetako egonaldia egin zuten. Bertan natura, flora, fauna, fosilak... aztertu zituzten. Talde ederra, ezta?**



Mus Txapelketan final aurrekoa jokatu da eta Torrepe eta Leintz elkarteak dira momentuz finala jokatuko dutenak. Ez pentsa bide erraza eduki dutenik, Torrepekoek Udalperen kontra jokatu zuten pasa den asteburuan eta Leintzekoek Hamaika Gaztekoekin. Finalean zer gertatuko da? Gaur, ostirala, ezagutuko dugu irabazlea.

## IZEN PROPIOAK

● EAko **Esther Larrañaga** arrasatearra Gipuzkoako senaturako azaltzen da EA-EUE koalizioko zerrendetan, EAko **Igor Altuna** Kogresurako ordezkoa eta **Jabier Lasaga** zinegotzi ohia izango dira EAJtik eta Joseba Ugalde arrasatearra IUtik.

● **Amaia Gabilondo**, 26 urteko arrasatearra, **Maite Agirrebeitia**, 25 urteko arrasatearra eta **Iñaki Etxeberria**, 25 urteko bergarra, dira ARKO, Arrasate Komunikabideak enpresako publizitate arduradun berriak.

● Getxoko Faduran pasa den asteburuan burutu ziren frogetan, **Jaime Sanchez**, **Gabi Saavedra**, **Manu Anguas** eta **Alex Saavedra** laukote arrasatearrak Euskadiko zilarrezko domina irabazi zuten eta era berean Gipuzkoako txapel-dunak dira 4x400 erreleboen kategorian.

Altzariak  
Diseinua

M  
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

CEERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

SAMEGO  
GARBIKETAK

Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39

**Guzti hau irudi berri baten  
hasiera baino ez da,  
profesionaltasun garbiko  
bidean.**



**Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-  
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.  
Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta  
aholkamendu- maila.**

**Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak  
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.**

**Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-  
biko bidean.**



# Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



## Zortzi magnifikoak edo final usaia

Final usaia Zaldibarren, eta denboraldiko zortzi magnifikoek prest daukate berrogeitabosteko errebolberrak. Loteria honetan, azkarrenak irabaziko du.

Joan den asteburuan bukatu zen bigarren fasea. Lehenengo hiru multzoetan aurrez ia dena erabakita zegoen. Laugarrenean ziren kontuak, ordea, hiru talde burrukan eta bi txartel besterik ez.

Trikiti eta Leintzek nahikoa zeukaten euren arteko partidua

berdintzearekin, eta enpatatu egin zuten, bai horixe: husna gainera. Norgehiagokan zehar txisturen batzuk ere entzun omen ziren, espekulazioa ote...

Txistuak txistu, Trikiti eta Leintz Zaldibarreko zortzi magnifikoek artean daude orain, Argi Ibili, Zuloak, Adelaida, Mikelos, Zizti Zazta eta Suministros Ugarterekin batera.

Airean final usaia. Errebolberrak prest. Nor azkarrena?

**NUEVO**  
taberna

Bañez Doktoea, 15  
Tfnoa: 79 99 88  
ARRASATE



DEBA  
**GARAIA**

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia  
Tfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

**SEGURASKI BAIETZ !**

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	7	6	1	0	45	13	<b>13</b>
ZULOAK	7	5	1	1	34	14	<b>11</b>
ARRASATE KIR.	7	5	0	2	33	22	<b>10</b>
NUEVO TABERNA	7	3	2	2	26	21	<b>8</b>
ARRASATE KRIST.	7	2	1	4	22	24	<b>5</b>
TXOKO TABERNA	7	2	0	5	16	35	<b>4</b>
PEPELUS	7	1	1	5	17	40	<b>3</b>
LOS DIMY	7	1	0	6	20	44	<b>2</b>
GUZTIRA	56	25	6	25	213	213	56

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	7	7	0	0	40	12	<b>14</b>
ZIZTI-ZAZTA	7	5	0	2	34	17	<b>10</b>
NOSKI	7	4	0	3	45	30	<b>8</b>
DIEGO ANTONIO	7	4	0	3	32	27	<b>8</b>
LORATEGI POTROAK	7	3	0	4	26	26	<b>6</b>
KAIXO LENIZ	7	3	0	4	30	36	<b>6</b>
MONTERREY TAB.	7	2	0	5	19	37	<b>4</b>
PUBLICCOOP	7	0	0	7	12	53	<b>0</b>
GUZTIRA	56	25	0	28	238	238	56

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
ADELAIDA	7	6	1	0	27	8	<b>13</b>
MIKELOS	7	4	2	1	14	9	<b>10</b>
NOTXINGAN FLO.	7	4	0	3	20	16	<b>8</b>
DANOK LAGUN	7	3	1	3	21	19	<b>7</b>
GURE LEKU	7	2	1	4	24	21	<b>5</b>
JODO FLORO	7	2	1	4	18	23	<b>5</b>
ZULUS	7	1	3	3	21	26	<b>5</b>
BIZKORRAK	7	1	1	5	7	30	<b>3</b>
GUZTIRA	56	23	10	23	152	152	56

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	7	4	2	1	18	8	<b>10</b>
LEINTZ GARAG.	7	4	2	1	21	15	<b>10</b>
MOTZ	7	3	2	2	26	23	<b>8</b>
URMAY B. K.	7	3	2	2	20	18	<b>8</b>
LOS HEREDIA	7	2	3	2	28	23	<b>7</b>
KOKKAS	7	2	1	4	20	28	<b>5</b>
LASO-ARREGI	7	1	2	4	19	32	<b>4</b>
BETRAYER	7	1	2	6	24	29	<b>4</b>
GUZTIRA	56	20	16	20	176	176	56



**Rafa (Monterrey Taberna ekipokoa)**

“Zaldibar nahiko txapelketa ona da, oso ondo antolatuta dago eta kirola praktikatzea gustatzen zaigunoi ere ondo datorkigu” esaten digu Rafak. Azken bi urteotan Monterrey taberna ekipoa jokatu du eta aurten, bestetan baino askoz hobeto ibili dira, bigarren fasera pasatzea lortu baitute, “asko hobetu


garela iruditzen zait, atezain bezala jokatzen dut eta nik behintzat gauzak askoz hobeto ikusi ditut” azaltzen du irifarrez.

Talde asko daude onak, baina, erraza izan ez arren, honako hauek ikusten ditu finalista bezala: Suministros Ugarte eta Argi Ibili. “Oroko-rean futbolean nahiko maila

ona ikusten da, jokalaririk onak dabilta hemen eta ekipo onak osatzen dituzte gainera”.


Horretaz gain, esan behar da Zaldibarko txapelketa lagunak egiteko aukera paregabea iruditzen zaiola Rafari “Primeran pasatzen dugu eta jende asko ezagutzeko ere aukera paregabea iruditzen zait”.

**Miren Garai Estetika Zentrua**



- Gure Espezialitateak:**
- Loditasuna: Goserik pasatu barik.
  - Tratamendu Organuterapikoa
  - Zelulitisa: Liposukzio eta lipoeskultura bidez.
  - Barizeak: Infiltrazioa eta Zirugia
  - Zirugia Estetikoa

Zarugalde 23-2. ezk. 79 96 90




**PINTURA EKOLOGIKOAK**  
**Diferentzia: zure osasuna**

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

# Aurrekontuak 93

Zirriborroa



## 1992ko UDAL AURREKONTUAK

Udala .....	2.986.678.610	... (iaz baino %0,45 gutxiago)
AUKEA .....	148.613.000	... (iaz baino %2,25 gutxiago)
Iturbide Egoitza .....	160.112.000	... (iaz baino %9,79 gehiago)
<b>Aurrekontu orokorra .....</b>	<b>3.154.591.610</b>	<b>..(iaz baino %2,97 gehiago)</b>

## SARREREN AURREKONTUA

1.KAP. Zuzeneko zergak .....	426.450.000	..... %14,3
2.KAP. Zeharkako zergak .....	80.000.000	..... %2,70
3.KAP. Tasak, etabar .....	346.236.134	..... %11,6
4.KAP. Transferentzia arruntak .....	1.250.731.493	..... %41,9
5.KAP. Ondarezko sarrerak .....	28.500.000	..... %0,95
6.KAP. Inbertsio errealakinorenganaztea .....	186.000.000	..... %6,25
7.KAP. Kapitalaren transferentzia .....	198.760.983	..... %6,65
8.KAP. Finantz aktiboen aldaketa .....	15.000.000	..... %0,5
9.KAP. Maileguak .....	455.000.000	..... %15,15
<b>Guztira .....</b>	<b>2.986.678.610</b>	<b>..... %100</b>

## GASTUEN AURREKONTUA

1.KAP. Pertsonal-gastuak .....	588.618.233	..... %19,71
2.KAP. Zerbitzuak eta ondasunen erosketak .....	443.932.661	..... %18,01
3.KAP. Maileguen interesak .....	126.641.473	..... %4,24
4.KAP. Transferentzia arruntak .....	480.828.940	..... %16,10
6.KAP. Inbertsioak .....	1.094.591.258	..... %36,65
7.KAP. Kapitalaren trasferentzia .....	145.015.742	..... %4,86
8.KAP. Finantz aktiboen aldaketak .....	15.500.000	..... %0,52
9.KAP. Mailegu amortizazioa .....	91.550.303	..... %3,06
<b>Guztira .....</b>	<b>2.986.678.610</b>	<b>..... %100</b>



**ESKEINTZA**

**BEREZIA!**

**Eguzkitarako  
betaurrekoak**

**2.000 PTatik aurrera**



**GARAGORRI**

Iturriotz, 29  
Tfnoa: 79 16 98  
ARRASATE

Bidekurutzeta, 13  
Tfnoa: 76 13 73  
BERGARA

**GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ-SAIL****GOBERNU-ORGANUAK**  
**27.363.088 (- %9,99)**

Errepresentazio gastuak eta Alkatearen soldata .....	24.563.088
Argitalpenak .....	300.000
Gastu bereziak .....	1.500.000
EUDEL .....	750.000
Dietak eta bidaiak .....	250.000

**KULTURA ETA KIROLAK**  
**422.069.089 (+ %3,93)**

Santa Barbarako urbanizazioa .....	30.000.000
AUKEAko inbertsioak .....	25.000.000
AUKEAren defizita .....	91.357.000
Amaia Antzokiaren birmoldaketa .....	80.000.000
Amaia Antzokiaren funtzionamendua .....	20.000.000
Pertsonal-gastuak .....	36.225.248
Kultura Batzordearen subentzioak eta ekintzak .....	18.800.000
Herriko Jaiak .....	20.000.000
Arte ekintzak .....	1.000.000
Txikilandia .....	2.900.000
AED-Ludoteka .....	4.752.500
Jose Letona beka .....	750.000
Mojategiko atletismo pista .....	50.000.000
Arrasate Musikal .....	46.000.000

**HEZKUNTZA**  
**246.161.055 (- %9,2)**

Hezkuntzarako subentzioak .....	14.750.000
Pertsonal-gastuak .....	16.596.985
Umezaintzaren eraikuntzari subentzioa .....	18.508.559
Inbertsioak Hezkuntzan .....	41.412.000
Eskola Politeknikoari subentzioa .....	35.000.000
Ferixalekuko ikastolaren eraikuntza subentzioa .....	50.000.000

San Viator ikastolari subentzioa .....	13.443.045
La Merced-i subentzioa .....	6.419.995
SFX Ikastolaren funtzionamendu gastuak .....	21.038.296

**OSASUNA**  
**171.802.151 (+ %4,83)**

Iturbide Egoitzako defizita .....	48.000.000
Iturbide Egoitzako inbertsioak .....	1.000.000
Etkez-etxekolaguntza .....	38.000.000
Pertsonal-gastuak .....	30.294.773
Elbarrituen garraio zerbitzurako .....	2.324.853
Drogomenpekotasun-Zerbitzua .....	7.535.000
K.I.U.B. ....	1.475.000
Pobreziaren kontrako plana .....	26.850.000
Hirugarren adineko ekintzak .....	8.500.000
Emakumearentzako ekintzak .....	1.000.000
Adin gutxiekoentzako .....	1.977.525
Hirugarren munduari laguntza .....	2.000.000

**HIRIGINTZA**  
**830.585.334 (- %20,62)**

Kale argizatzea .....	6.333.000
Hiri Zaharrerako plana .....	30.000.000
Pertsonal-gastuak .....	56.776.743
Cordoba y Oro urbanizatzea .....	15.000.000
Gesalibar plazako urbanizatzea .....	16.000.000
Roneo inguruko aparkalekua .....	43.242.235
Hiruki plazako urbanizatzea .....	30.000.000
San Andres plana .....	5.000.000
Bideak asfaltatzea .....	14.000.000
S-10 kooperazio planeamendua .....	38.241.468
A-20 kooperazio planeamendua .....	25.000.000
Meatzerreka-hilerria bidea .....	18.000.000
Maalako rotonda .....	20.000.000
Santamainako ensantxea .....	15.000.000

**B E N G O A****LURRINDEGIA - BITXITEGIA - OPARIAK**

Zerkaosteta, 5 - Tfnoa.: 79 28 85 - ARRASATE



## GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ-SAIL

Santa Teresako urbanizazioa .....	15.000.000
Udal ondareko inbertsioak .....	12.000.000
Telefonica botatzea .....	8.000.000
Zeharkaleko anexoa .....	15.000.000
MCM erosteko .....	85.000.000
Larrea Koop.Elk.eko lokalak .....	41.321.800
Aparkalekuak .....	2.000.000
Ondasun patrimonialak erosteko .....	40.000.000
Hilerri berria .....	75.000.000
Honorario teknikoak .....	45.000.000
Gudari Plazako portxea konpontzea .....	6.771.049
Parrokia konpontzeko .....	28.000.000
Munarreko saneamendua .....	5.000.000
Topografia .....	5.000.000
Industri promoziotarako inbertsioak .....	56.500.000
Plan orokorra .....	6.000.000
Arrasate-San Viator espaloi konponketa .....	1.406.719
Gorostizako eskilarak .....	2.000.000
Mankomunitateko inbertsioetarako .....	6.736.134

### PERTSONALA

**285.432.429 (+ %24,25)**

Pertsonal-gastuak .....	175.089.887
Hezkuntza okupazionala .....	23.773.835
Bulego eta informatika ekipoa .....	10.500.000
Udal aseguruak .....	7.000.000
Bulegoko materiala .....	6.550.000

### AUZOAK

**81.325.074 (+ %7,86)**

Mendi-nekazaritzako inbertsioak .....	25.100.000
Inbertsioak .....	21.000.000
Landa-bideak .....	15.000.000
Auzoetako jaiak .....	6.289.034

### ZERBITZUAK

**510.305.831 (+ %4,8)**

Pertsonal gastuak .....	163.401.970
Kale garbiketa .....	82.700.000
Zerbitzu mankomunatuaren kuota .....	72.222.370
Parke eta lorategien mantenimendua .....	53.479.296
inbertsioak lorategietarako .....	10.000.000
Argiteria publikoa .....	24.500.000
Ur-zerbitzurako erosketak .....	20.500.000

### EUSKARA

**173.868.778 (+ %22,39)**

Pertsonal-gastuak .....	80.540.532
Euskara Batzordearen subentzioak .....	49.568.246
Euskaltegiaren iharduera .....	5.550.000
Euskera Batzordearen ekintzak .....	5.300.000
Bekak .....	1.217.309
ATBrako tresneria .....	30.000.000
Egunkariaren akzioa .....	500.000

### GAZTERIA

**19.574.077 (+ %66,71)**

Subentzioak eta Batzordearen ekintzak .....	10.000.000
Pertsonal-gastuak .....	5.129.007
Gaztetxea konpontzeko .....	3.000.000

### FINANTZ ZORRA

**218.191.776 (+ %50,73)**


Maileguen interesak .....	126.641.473
Maileguen amortizazioak .....	91.550.776



**INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK  
AHOLKULARI INMOBILIARIA**

**Anboto**

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa.: 79 20 48




**Baskotour  
Bidaiak**

Tfnoa.: 79 32 21  
79 32 22  
79 10 41



**LENIZ  
GARAGARDOTEGIA**


# Xantia



## PROGRESOA EZ DA INOIZ HONEN EDERRA IZAN.

**Progresoa ez da inoiz honen ederra izan.**

Progresoa, bizimodu eder eta seguruaren sinboloa. Citroen-ek Xantia sortu du. Lagundutako direkzioa, altueraz alda daitekeen bolantea, barrukalde zabal eta eroso.



Primerako ekipoa: suspentsio hidroaktiboa, aire egokitua, compact-disc, larruzko jarlekuak, alarma eta abar, bertsioren arabera.

**Segurtasuna ez da inoiz honen ederra izan.**



Indartutako atea, hiru loturako segurtasun gerrikoak, disko-frenoak, ez blokeatzeko ABS sistemarekin. Gauerako argi bereziak eta Michelin gurpil berri-berriak.

Citroen Xantia: segurtasun eta edertasunaren arteko aliantza perfektua.

Indartutako atea, hiru loturako segurtasun gerrikoak, disko-frenoak, ez blokeatzeko ABS sistemarekin. Gauerako argi bereziak eta Michelin gurpil berri-berriak.

**Indarra ez da inoiz honen ederra izan.**

Injekzio motore multipuntuak, 1.761 cc, 1.998 cc eta 16 balbula. Indarra: 103, 123 eta 155 CV. Zeretik ehunera 9.6 segundutan. Motore ekologikoak.

...Progresoa ez da inoiz honen ederra izan.

## TXAPIME TAILERRAK

Arrasateko banatzailea

**CITROËN**



**BELARRIRA**

◆ **10 minutu gehiago**

Berrikuntza bezala, zera aipatu daiteke, hemendik aurrerako partiduek orain arte bezalaxe bi zati izango dituztela, baina 25 minutukoak izan beharrean 30era jokatuko dira. Beraz, jokalaria batzuen gozamenearako eta beste batzuen sufrimenturako, aurrerantzean Zaldibarrera hurbiltzen diren ikusleek futbol gehiago ikusi ahal izango dute, 10 minutu.

◆ **Afarien zozketak**

Aste honetan, ATBko Mondrasport saioan egingako zozketan bi talde hauek izan ziren sarituak: Danok Lagun eta Arrasate Kirolak. Beraz, final laurdenetarako txartela galdu izanaren kontsola-mentu gisa, horra hor afari bana eta on egin daiela bie!

◆ **Penaltyak**

Oraindik ere despistaturen bat geratzen bada, gogoratu egingo diogu final laurdenetan markagailuan berdindu ezker, penalty puntutik erabakiko direla kontuak.

**Iritsi dira final laurdenak, datorren larunbat eta igande goizean jokatuko dira: ordubeteko norgehiagokak semifinaletarako sailkapena lortzeko bidean, eta enpatean bukatuz gero, penaltyak. Gauzak horrela izanik, ziur jokaldi bakoitza tentsio haundikoa izango dela, high voltage, goiko argazkian gertatu bezala.**

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Argi Ibili 6 .....	Zuloak 2
Arrasate Kir. 4 .....	Los Dimy 5
Pepelus 3 .....	Pepelus 3
Txoko taberna 4 .....	Arrasate Kirolak 9

**B TALDEA**

Sum. Ind. Ugarte 6 .....	Zizti Zazta 2
Monterrey Tab 10 .....	Publicoop 4
Noski 9 .....	Diego Antonio 4
Lorategi Potroak 7 .....	Kaixo Leniz 2

**C TALDEA**

Mikelos 1 .....	Adelaida Haizea 2
Jodo Floro 5 .....	Gure Leku 1
Zulus 3 .....	Danok Lagun 7
Bizkorak 2 .....	Notxingan Florest 1

**D TALDEA**

Trikiti 0 .....	Leintz Garagar. 0
Motz8 .....	Koxkas 3
Betrayer 6 .....	Laso Arregi 7
Los Heredia 3 .....	Urmay B. K. 5

*Trikiti* S.L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 8**

11.00 **Zuloak / Suministros Ugarte**  
12.00 **Mikelos / Trikiti**

**Igandea 9**

11.00 **Adelaida / Leintz**  
12.00 **Argi Ibili / Zizti Zazta**



90-91 denboraldian txapelketa irabazi zuten. **Adelaida**, aurtan ere zortzi onenen artean.



91-92 denboraldian txapelketa irabazi zuten. **Argi Ibili**, aurtan ere zortzi onenen artean.

# URIBE AUZOKO FUTBITO TXAPELKETA

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AMBOTOSTE K.T.!	5	4	0	1	14	8	<b>8</b>
POTROSORRI	5	3	1	1	15	15	<b>7</b>
TABERNIKOLAS	5	2	2	1	15	9	<b>6</b>
GANBELAS	5	2	1	2	18	6	<b>5</b>
XE OSTIAS	5	1	2	2	15	11	<b>4</b>
ESKINAKO HONTZAK	5	0	0	5	4	32	<b>0</b>
GUZTIRA	30	12	6	12	81	81	<b>30</b>

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ALPARGATA TURBO	5	4	1	0	16	9	<b>9</b>
SOKOAKOAK	5	4	0	1	17	13	<b>8</b>
LAUTHERBRUNNEN	5	2	1	2	17	11	<b>5</b>
AUF DEM KOFFER	5	2	1	2	8	8	<b>5</b>
BAYERN DE LEINTZ	5	0	2	3	8	13	<b>2</b>
BAYERN PROMESAS	5	0	1	4	8	20	<b>1</b>
GUZTIRA	30	12	6	12	74	74	<b>30</b>

**Uribe auzoko futbito txapelketan ere iritsi dira final laurdenak. Zortzi talde txapelaren bila, eta larunbatean bertan honako partidu hauek ikusteko aukera:**

- Larunbata. Iturripe B. 16.00. Anbotoste-Auf dem Koffer**
- Larunbata. Iturripe B. 17.00. Tabernikolas-Sokoakoak**
- Larunbata. Iturripe B. 18.00. Alpargata Turbo-Ganbelas**
- Larunbata. Iturripe A. 18.00. Potrosorri-Lautherbrunnen**

## Trikipublic

Kanpatorpea, 2  
Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •



● *Luis Eduardo Rodriguez*

# Arrasatera etorritako brasildarra

**Luis Eduardo, Brasildarra, orain dela urtebete etorri zen Arrasatera. Bere herriak bizi dituen arazo eta kezka berdinak ikusi ditu Euskadin isladatuta.**

— Zer dela eta etorri zinen Arrasatera?

— Arrasatera etorri baino lehenago Jacan egon nintzen, eta toki turistikoa denez, era guztietako jendearekin izan nituen harremanak, jende asko ezagutu nuen, horietako asko euskaldunak. Ezagutu nituen momentutik asko identifikatu nintzen euskaldunekin. Beharbada, herri honek Hegoamerikako arazo berberak dituelako eta historian zehar euskaldunek bizi izan dituzten arazoak eta nire herrian bizi izan ditugunak, antzerakoak direlako. Baina, atzerritarren legea onartu zenean, Arrasatera etortzeko erabakia hartu nuen. Orduan ulertu nuen legearen barruan hemen bizi izateko aukera nire eskuetan nuela eta buruari buelta batzuk eman eta gero, maletak egin eta berehala etorri nintzen Arrasatera. Orduetik denbora ere pasatu da eta hemengo giroa, bizimodua

hobeto ezagutu dut. Izan ere, herri bateko ohiturak, jendea, denborarekin ezagutzen dira.

— Zergatik Arrasatera?

— Arrasaten taberna bat duten bikote bat ezagutu nuen Brasilen, eta hasieran horien bidez etorri nintzen, baina denborarekin Uxarte gozotegian aurkitu nuen lana eta ordutik, bertan ari naiz. Hori hasteko modu izan zen baina, ordutik lagun asko egin dut hemen eta oso pozik nago. Alde horretatik, euskaldunok itxuraz oso izaera itxia duzuela erakutsi arren, ezagutu eta gero, gehiegizko konfidantza eskaintzen duzuela uste dut. Esate baterako, Jacan egon nintzenean beste espainolak oso desberdinak zirela konturatu nintzen, eta ez euskaldunekiko bakarrik, euren artean ere ezaugarri oso bereziak dituzte. Horregatik identifikatu nintzen berehala euskaldun jendearekin.

— Nolakoak gara, bada, euskaldunok?

— Ez dakit, bereziki euskaldunok duzuen pentsatzeko modua gustatzen zait. Bestalde, nire ustez zuen ideologiatik borroka egiteko prest



zaudetela uste dut eta, beharbada horregatik identifikatzen naiz herri honekin. Horretaz gain, kulturalki ere asko gustatzen zaizkit hemengo ohiturak, bizitza, eta baita hizkuntza ere; momentu honetan euskara ikasten nabil, nahiz eta oso zaila izan. Gainera, kontutan hartu behar da Brasil Portugalen kolonia izan zela, nire ustez ez dago desberdintasun handirik Brasilekin eta nolabait hemengo ohiturak han ere zabalduak daude. Garai horretan euskaldun asko joan zen Ameriketara eta horrek ere izan du bere eragina gure gizartean, argi eta garbi ikusten da hori.

— Zela ikusten duzu momentu honetan Brasilen egoera?

— Eskuineko alderdiak interes iparamerikarrak de-

fenditzen ditu eta horren ondorioz klase sozialen arteko desberdintasuna gero eta nabariagoa da, eskuina gero eta aberatsagoa da eta ezkerreko gero eta pobregoa. Benetan aberatsa izan daitekeen herri bat, mineraletan duen aberastasunagatik, turismoarengatik... momentu honetan lur jota dago. Azken lehendakaria boterera heldu zenean ulertu nuen ez nuela arrazoirik han geratzeko eta orduan hartu nuen handik irteteko erabakia. Hau da, nire jaioterrian bizi den egoerak handik irtetzen lagundu dit.

— Brasilen duzun familia eta lagunekin harremanak mantentzen dituzu?

— Bai, noski, lagun asko eta nire familia osoa han utzi ditut. Nire gurasoak ere egon dira Arrasaten eta ahal dudanean ni ere joaten naiz Brasilerara. Honekin esan nahi dut harremanak ez ditudala galdu nahi eta nolabait beti botako ditudala faltan. Baina, momentuz Arrasaten geratzeko asmoa dut, oso gustora nago eta.

● **“Nire herriak bizi duen egoerak bultzatu ninduen handik irten eta Euskal Herrira etortzera”**

# Merkatarien kezkak atenditzeko zerbitzu berria

Rosa Mondragon

**Modernizazioak eta bizi-izateko era berriak bultzaturik, lehengo denda txiki eta familiarrak erabat aldatuz edo desagertuz doaz. Aldaketa prozesua urte batzuk direla hasi zen eta Arrasaten esate baterako Ibai-Arte, Erdi Aldeko merkatarien elkarte sortu zen. Elkarte horrek bultzatuta eta Mankomunitateak eta Eusko Jaurlaritzak lagundurik, Deba Garaiko merkatariei zuzendutako zerbitzu berria sortu zen otsailean.**

Pasa den otsailean merkatariei zuzendutako aholku eta laguntza zerbitzua zabaldu zen Deba Garaiko Mankomunitatean. Orain dela lau urte, Eusko Jaurlaritzak landutako programa baten barruan, Euskal Herriko herri desberdinetan merkatariei zuzendutako zerbitzua zabaltzeko proiektua ezagutu zen. Gaur egun, 18 gabinete desberdin daude Euskal Herrian zehar, ia guztiak zerbitzu bera eskaintzen dutenak. Aurten, Deba Garaian tokatu zaio Arrasaten kokatu den zerbitzuarekin, .


“Ibai-Artek, berak, aholkularitza eta merkatariei laguntza berezia eskaintzeko zailtasun batzuk ikusten zituen, zuzenki atenditzeko, batez ere. Horregatik, zerbitzu berezi bat sortzeko beharra ikusi genuen eta denborarekin zerbitzu hori zabaltzeko aukera genuela konturatu ginen” azaltzen digute Ibai-

Arteko ordezkariak.

## HIRU EGINKIZUN

Merkatariei zuzendutako zerbitzu honek, bete beharreko hiru helburu markatu ditu: dendariei informazioa eskaintzea, aholkularitza teknikoa ematea (gestioan lagunduz) eta azkenik, ikastaro desberdinen bidez, formazioa osa-

tzea. Azken puntu honetan, aipatu behar da aurten zortzi ikastaro burutu direla jadanik, Ibai-Artek zuzendu eta inguruko merkatarien onepenarekin. Kontsulta eta dendaria desberdinen bisitak martxoan hasi dira, baina hilabete batzuk jardunean egon arren, oraindik oso gutxi dira bertara zuzendu diren merkataria. “Oraindik ez da denbora asko zerbitzua zabaldu zenetik, hilabete batzuk bakarrik, baina hasieran baino jende gehiago etortzen da, beharbada lehen askorentzat ezezaguna zelako, baina eza gutzen duten heinean, gero eta gehiago hurbildu dira” azaltzen digu Olatz Muruamendiarek, zerbitzuko arduradunak. Aretxabaleta, Bergara, Arrasateko merkatariek, Ibai-Artekoek zein elkartetik kanpo daudenek, egin dituzten kontsultak atendi dituzten azken bi hilabetetan. Dena dela, zerbitzura zuzenduta baino telefonoz askoz ere kontsulta gehiago egin da. Egindako kontsulten artean: berrikuntza eta beste gauza batzutarako Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak, gestioa hobetzeko teknika berriak, kuestio legalak kontsultatu... horrelako gaiak izaten dira gehien bat kontsulta-



Olatz Muruamendiarek da gaur egungo arduraduna

JOSEBA



Otsailean zabaldu zen Mankomunitateko zerbitzu berria.

JOSEBA

tzen direnak. Maila horretan esan behar da, momentuz joan zen urtean eman ziren laguntzak hartzen direla erreferentzi bezala, Eusko Jaurlaritzak aurten emango laguntzak zehaztu arte.

### KRISIAK BULTZATU-TAKO ZERBITZUA

“Krisiak eta denda handiek bultzatuta, merkatari txikiek bide berriak hartzeko beharra somatzen dute eta zerbitzu honek horretara laguntzea du helburu” dio Olatzek. Esate baterako, kontratuak egiteko, beste papel guztiak betetzeko edota errenta aitortpena egiteko zerbitzuak informazio eta laguntza zehatza eskaintzen du. Bakoitzaren negozioan dauden akatsak eta egin behar diren aldaketak kontrolatzen ikastea lortu nahi da eta bide batez, nolabait krisiaren aurrean hartu daitezkeen neurriak ezagutzea.

Maila honetan, aspaldiko dende, denetatik saltzen zutenek, espezializaziora jotzen

dute gaur egun, horixe baita gaur egun egon daitezkeen irtenbide bat. Eta, krisiaren aurrean gaur egun merkatari askok hartzen duten bidea da espezializazioa. Hala ere, badaude beste bide batzuk, esate baterako denda asko katai komertzial handietan sartzen dira: IFA, Erosle, Sebastian de la Fuente..., merkatu zabalak eta konpetibitatearen aurrean segurtasun bat emango dion loturaren bila.

### IBAI-ARTEK ABANTAILA GEHIAGO

Azken urteotan Ibai Arte bezalako merkatarien elkarre ugari sortu da Estatuan eta baita Euskal Herriko herri desberdinetan ere. Katalunian, esate batera, horrelako 343 elkarte daude gaur egun. Elkarte hauek abogatu, aparejadore eta bestelako laguntzaileak dituzte. Ibai-Arte, lan gehiena bertako bazkideen artean banatzen du eta

arazo legalak eta Haziendarekin egin beharreko tramitaziotarako aditu baten laguntza izaten du. Beste merkatariok, orain arte behintzat, banan banan bilatu behar izaten diote arazo desberdinei irtenbidea. Momentu honetan zerbitzu berri honen bidez, erraztasun batzuk eskaintzen zaizkie, denda barruan egin behar izaten dituzten berrikuntza zein beste gestioetan.

## Krisiari irteera bilatu nahian

Elkarte bezala osatu zenetik, Arrasateko Kooperatibek eta inguruko enpresek jasan duten egoera ekonomiko larriaren testigu izan da Ibai-Arte. Merkatarien aldetik, profesionalizazioa lortu nahi izan dute eta nahiz eta ikastaro desberdinek horretan lagundu, hiru urteko ikasketak ezarri nahi dituzte, teknikari komertzialak formatzeko. “Ikasleen aldetik, karrera bat egin behar dutenek, teknikari komertziala izateko posibilitatea kontutan hartzea da gure asmoa” esaten digu Jesus Uriarte, Ibai-Arteko lehendakariak.

Orain dela hamar urteko egoera, gaurkoa eta hurrengo hamarretan izango dena kontutan hartzen badugu, desberdintasun handiak somatu daitezke Arrasaten, egoera ekonomikoaren eraginez, batez ere. “Aldaketa honetan paper inportantea izango dugu merkatariok, enpresen herria izan dena, inguruko zerbitzuen herri bilakatuko delako, hori da guk uste eta nahi duguna behintzat. 2.000. urteari begira, herri berri bat sortu behar dugu eta zerbitzuen herri bat sortzeko, formazio berezia behar da. Zerbitzu berri hau, hasteko, prestakuntza bat eskaintzen saiatuko da, nolabait hasteko balioko duena”.

# Saskibaloia: etorkizunaren aldeko apustuan

**Jose** Mari Balzategik albiste polita ekarri zuen asteazkenean Donostiatik bueltan. Maiatzaren 29an Iturripen jokatuko dira Gipuzkoako Koparen finalak.

Final horiek bost kategoriatan izango dira: gizonzkoen jubenil eta kadeteak, eta emakumezkoen senior, jubenil eta kadeteak.

Guztira bost partidu haundi, zaletuak gustora uzteko modukoak.

Maiatzak 29, Iturripe.

Federazioak ondo egingadako lanaren truke eskeindio antolakuntza Arrasateko taldeari. Zorionak!

Ezin ahaztu, gainera, Mondragoeko hiru talde final horietara heltzeko aukerekin daudela: gizonzkoetan jubenilak eta kadeteak, eta emakumezkoetan kadeteak. Hirurak semifinaletan daude, animo.

## "Feliko" lehendakari?

Denboraldia bukatu eta Jose Mari Balzategik lehendakaritza utziko du. Arrasate Saskibaloi taldean jarraituko du lanean, Zuzendaritza Batzordean eta kadete mailako taldea entrenatzen.

JMBren hutsunea betetzeko lehendakari berria behar dute, beraz; azken boladetan bilera ugari egin dituzte bide horretan aurrera jo as-



Lan ederra egin, baina ez dakite datorren urtean hemen jarraituko duten

moz, eta badirudi tunel ilunaren bukaeran argi pixka bat somatzen hasi direla.

Felix Ayala, "Feliko", Zuzendaritza Batzordeko partaidea izan da orain arte jokalarien gurasoen ordezkari gisa. Dirudienez "Feliko" prest egongo litzateke kargua hartzeko, baina hori bai, datorren denboraldirako sponsorra lortzen bada, bestela jai!

Astean zehar hainbat bilera burutu dituzte printzipioz interesatuta egon daitezkeen hiru enpresarekin (eta kasualidadea, hirurak Arrasatetik kanpokoak dira). Felix Ayalak astelehenean konfirmatuko du lehendakaritza onartzen duen ala ez.

## Sponsorraren zain

Denboraldia asteburu ho-

netan bukatuko da senior taldeentzat. Emaizta aldetik helburuak bete dira, eta gizonzkoen kasuan, gainera, sekula lortu duten klasifikazio onenaz: 6. postua.

Etorkizunaren apustua irabazi nahi baldin bada, ordea, sponsorra lehen bait lehen lotu beharko da. Astelehenean jokalaria guztiek oporrak hartuko dituzte, datorren denboraldian hemen jarraituko duten jakin gabe.



Felix Ayala, "Feliko"

## LABURRAK

### Domekan, Otala Zelaiko Krossa

Urkuluko urtegia ingurutako korrikalarien topaleku bihurtuko da berriro domeka honetan, maiatzak 9. Goizeko 11etan Zelikua baserri aurrean hasiko da, hain zuzen, Otala Zelaiko XV. Kross Herrikoia.

Proba honetan edozeinek har dezake parte, eta lau kategoriatan bereiztuko dira: Senior eta Beteranoek bi buelta eman beharko dituzte, guztira 13 kilometro eta 400 metro. Junior eta Emakumeek, berriz, buelta bakarra egingo dute, kasu honetan 6 kilometro eta 700 metro.

Inkripzioak egiterako orduan 300 PTA. pagatu beharko dira, eta izen emateak larunbatera bitartean egin ahal izango dira Aretxabaletako Kirol Etxean, edota bestela Urkulun bertan, domekan, proba hasi baino ordu terdi lehenago. Dorsalen banaketa ere hantxe egingo da, 9.30etatik 10.30etara bitartean.

Senior mailako irabazleak 20.000 PTA. jasoko ditu, eta horrez gain kategoriatan honetan beste lau sari emango dira. Junior, Beterano eta Emakumeen probetako irabazleek, berriz, 10.000 PTA. eskuratuko dituzte, eta kategoriatan bakoitzean beste bi sari banatuko dira.

Norbaitek Jose Apalanzen marka hobetuko balu (42 minutu eta 10 segundu), 25.000 PTA.ko saria eskuratuko luke.

Bukatzeko, gogoratu Otala Zelaiko proba Gipuzkoako Kross Herrikoien 2. Challenge-rako baliogarria dela.

BLUSAK  
OSAGARRIAK  
POLTSAK

**XATHO**

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

*ESLU*

**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE

**PENALTIAK**

● **Maiatzak 8, larunbata, Garagartzako Rugby zelaia. Urteroko ohiturari eutsiz, sekulako neurketa jokatu da: Arrasate Rugby Taldea, Txanton-Boys talde mitikoaren kontra. Tartean punturik ez, baina bai hori baino gehiago: harrotasuna. A ze baziladak aguantatu beharko dituzten galtzaileek!**

● **Aukera ederra izango dute gure nagusiek maiatzaren 15ean kirola dohan praktikatu eta gozatzeko. Egun horretan, Deba Garaiko Edadetuentzako II Kirol Jaia antolatuko da Oñatin. Animo eta eman izena martitzena baino lehen, Iturbide egotzan.**



**Kopako txapelaren bila**

Azken hiru denboraldietan emakumezkoen Mondra taldeak lan ederra burutu izan du kopa txapelketan. Baten irabazi, bestean finalista, eta hirugarrenean semifinaletara iritsi zen.

Aurtengo denboraldian ere, liga bukatu eta kopari ekin zioten. Mondra taldea B multzoan murgilduta dago, Bortzirriak, Zumarraga eta Ostadar taldeekin batera. Fase hau bukatzeko bi ihardunaldi falta direnean ziurtatuta dago arrasatearrak finalerdietara pasako direla, orain arteko partidu guztiak irabazi bait dituzte. Behin finalerdietan, Orio edo Aretxabaleta taldeen kontra neurtuko dituzte indarrak, segun eta bi talde hauetatik zein sailkatzen den.

Finala Donostian jokatu da, ekainaren 6an. Kezka bat... noren kontra jokatu dute gure neskek final hori?

**Kopako finalera bai?**

Semifinaletara iritsi gara, eta kontutan hartuta taldea ze ondo dagoen, finalera helduko gara duda barik.

Eta behin finalera iritsita, nik uste irabazi egingo dugula. Gu asmo horrekin gaude behintzat.



**AINHOA ZULUETA**  
Emakumezkoen Mondra taldekoa

**EMAITZAK**

**Futbola**

3. maila: Mondra 2-Gernika 1  
Preferente Araba: San Andres 1-San Ignazio 0  
Jubenilak, ohorezkoa: B.O. Touring 3-Mondra 0  
Jubenilak, 1. maila: San Andres 0-Abetxuko 0  
Jubenilak, 2. maila: Urki 2-Arrasate 1  
Kadeteak, 1. maila: Aloña 1-Arrasate 4  
Kadeteak, 2. maila: Urki 2-Arrasate 1  
Haurrak: Real Union 3-Arrasate 1

**Hurrengo partiduak**

3. maila: Durango-Mondra, Tabiran,domekan, 5etan  
Preferente Araba: San Andres-Abetxuko, domekan, 6.30etan  
Emakumezkoak: Mondra-Ostadar, domekan, 11.15etan  
Jubenilak, ohorezkoa: Mondra-Union Txiki, larun, 6.30etan  
Jubenilak, 1. maila: Alaves-San Andres, Gasteizen, larun, 5.30etan  
Jubenilak, 2. maila: Arrasate-Soraluze, larun, 3etan  
Kadeteak, 1. maila: Arrasate-Aurrera, larun, 11etan  
Kadeteak, 2. maila: Arrasate-Soraluze, domekan  
Haurrak: Arrasate-Olartzun, Larun, 12.30etan  
Txikiak: Arrasate-Bergara, domekan  
Probintzi artekoa: S. Viator ikastola-Mutriku txiki, larun, 9.30eta

**Saskibaloia**

Senior gizonetzkoak: Arrasate 89-Caja Vital 48  
Senior emakumezkoak: CBN 33-Arrasate 48  
Sub 23: Arrasate 55-Aralar Kirolak 47  
Jubenilak, mutilak: Arrasate B 62-Zahor 46  
Jubenilak, neskek: Arrasate 43-Etxadi 39  
Kadete mutilak: Arrasate A 37-Don Bosko 38  
Kadete mutilak: Aldaeta 39-Arrasate B 69  
Kadete mutilak: Arrasate C 61-Askatuak 52  
Kadete neskek: Almen 31-Arrasate A 82

**Hurrengo partiduak**

Senior gizonetzkoak: Atletiko SS-Arrasate, Bidebietan, larun, 6etan  
Senior emakumezkoak: Arrasate-Jarrillerros, larun, 6etan  
Sub 23: Ordizia-Arrasate, Ordizian, larun, 4etan  
Jubenilak, mutilak: Miner-Arrasate, Bergaran, domekan, 10.30etan  
Jubenilak, neskek: A. Baloncesto-Arrasate, Irun, domeka, 11.45etan  
Kadete mutilak: A. Baloncesto-Arrasate A, Irun, domeka, 11.45etan  
Kadete mutilak: Arrasate B-Etxadi, Musakola, larun, 12etan  
Kadete mutilak: Laskorain-Arrasate C, Tolosan, larun, 11etan  
Kadete neskek: Arrasate B-Laskorain, San Viatorren, larun, 4etan

**Eskubaloia**

Seniorrak: Jauja 23-Arrasate 28  
Juniorrak: Arrasate 11-Pulpo 21

**Hurrengo partiduak**

Gipuzkoako kopa: Arrasate Senior-Arrasate Junior, larun, 5.30etan  
Kadeteak: Arrasate-Pulpo, larun, 4etan

**Pelota**

Herriarteko txapelketan, eskuz:  
Infantilak: Arrasate 18-Eibar 1  
Jubenilak: Arrasate 22-Eibar 10  
Nagusiak: Arrasate 22-Eibar 14  
Herriarteko txapelketan, herramintaz:  
Paleta: Arrasate 35-Antzuola 24  
Pala Kortan: Arrasate 40-Antzuola 28  
Deba Harroa txapelketan:  
Infantilak: Arrasate 18-Aretxabaleta 1  
Jubenilak: Arrasate 18-Aretxabaleta 3  
Nagusiak: Arrasate 14-Aretxabaleta 22

**Hurrengo partiduak**

Herriarteko txapelketaren barruan Usubil-Arrasate, ostiralean, 10etan, Usubilien.



• Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.  
• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORIATZA

**GIZON ETA**  
**EMAKUMEAREN**  
**MODA**



Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

# Janariak etxean izoztea (IV)

Izoztutako janariak luza-roan kontserbatzen dira -18°Ctan. Kontserbaziokoaldi luzeenak bi hilabetetik hirura artekoak dira prestatutako janariarentzat, urtebete arte behikia eta barazki gehienentzat. Gainerako jakietan, konposaketaren arabera dago dena.

Praktikan, janariak ez dira hainbeste denboraz kontserbatzen, izan ere, izoztu eta egun batzuetara hasten gara produktu horiek kontsumitzen, eta azkenengo paketeek bakarrik irauten dute euren kontserbazio-epairen azkenerrate.

Adierazitako denbora baino gehiagoan edukitzeak ez dakar kalterik osasunarentzat, baina zaporea eta kalitatea galdu egiten dira apurka apurka.

Oso garrantzitsua da desizoztea beti era egokian egitea, janariak izoztu aurretik zituzten ezaugarri guztiak



berreskura ahal izan ditzaten.

Horretarako dauden metodoak ezberdinak dira, janari motaren eta erabilpenaren arabera, baina egokienak hauek dira: Zati txikientzat, (haragi edo arrain xerrak edo barazkiak, adibidez), zuzenean prestatu, desizozteko premiarik gabe. Zati handiagoak desizoz-

tu egin behar dira prestatu aurretik, eta hozkailuaren beheko aldean egitea da egokiena. Ez da komeni berotasunarekin, berogailuaren gainean edo eguzkitan egitea, ez eta izozkailutik atera eta gero, prestatu beharrean janaria berriz izoztea ere.


Honetan bukatzen da gai

hau. Gogoratu horrelako elektrogailu bat erostean, tresnaren erabilpen egokirako eta etxean etekinik onena ateratzeko aholku praktikoak dituen liburuxka ematen dutela sal-tzaileek.

**MARI TERESA ALONSO**

Eroskiko Kontsumo  
Monitorea

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE


  
**H A U R T X O A**  
Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

 **PEUGEOT - TALBOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua  
**IBABE  
GARAJEA**  
**MEKANIKA, TXAPAETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**BERGARA** **ARRASATE**  
**HORTZ KLINIKA**  
**ESPECIALTATE GUZTIAK**  
PABLO MARMOL MASTRANGELD Dr.  
MARISA PORTA PEÑA Dra.  
GABRIELA PORTA PEÑA Dra.  
Simon Arrieta Plaza, 3 -2º Iturriotz 7 bis behea  
☎ 76 38 54 ☎ 79 73 88  
BERGARA ARRASATE

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



## SUKALDE LILURAGARRIAK!

### SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5

**URRETXU**

Tfnoa: 72 50 75

### BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 99 42



Zerrajerako langileen inguruan ere bada kontu politik.

# Erritmo motela

**1959a** zen, Ikeren bisitaren urtea, Plan de Estabilización delakoarena, eta batez ere, Bahamontesek Tourra irabazi zueneko. Zorri berdea preso eta armarik gabe, desarrollismora, guatekera eta seiscientosetara irekitzen ari zen sasoi hartako Espainia, eta sotana, bategite hautsezina eta Perpignanerako irteerak ere aldiberean bizi ziren.

Mondragoeko Unión Cerrajeran, bestalde, betiko erritmoan egiten zuten lan langileek, hau da, batere estresatu barik. Eta erritmo motela izateko, inor ez hoberik obretako brigada baino, artzaiarena egin edo kerizpetan

txorizo-bokadillo ederra jateko aparteko abildadea duena. Eta gainera, ez zen batere kritikagarria, izan ere, garai hartan "krisia" Gurea zineman bakarrik zegoen, eta puntualki ordaintzen zien langileei UCEMek, herriaren aita eta amarena egiten zuen, eta urtero, abuztuaren hamarreko Batzar Nagusian, langostino eta zizalaz asetzen zituen akzionista txiki guztiak. Kooperatibak jaiotzea, "ostia galanta hartu behar zuen zoro-kuadrila baten ideia" besterik ez zen artean.

Giro paketsu horretan, ez da harrizkoa obretako kapatazaren eta langile baten artean anekdota polita gertatzea. Garai

hartan langileak 25 pezeta kobratzen ei zituen orduko.

Langile horrek Paulo zuen izena, eta Aramaixoko baserritar handi bat zen. Goiz erdi zeraman almazenetik eskonbrerara eskonbroz erdi betetako karretila txiki bat eramanez. Kapatazak, gizontzar haren patxadarekin gero eta erreago, honela dei egin ei zion ofizianako atetik: — Hi, Paulo, ze pauso dok hori? Eta Paulok, pausoa batere arindu barik: — Bost duroko pausoa, bost durokoa.

**JOSE RAMON FERNÁNDEZ**

## SUTONDOAN

### ANGEL ABELETXE ETA BITTORIANATXO SORGINA (VIII)

Jakingo duzu, noski, Astuaga, Bergara, Antzuola, Zumarraga, Urretxu, Legazpi eta Oñatik ingurutzen duten dela. Mendi horretan, basa-behi, ardi, ahuntz eta pizti asko zeuden, basurdeak batez ere, Otso eta Zankarrote jentil anaiak han bizi ziren garaian. Honeik, indartsu eta ehiztari trebe bezain abere-zain eta lur-langile txarrak ziren, eta baita nagi xamarrak ere. Ezertariko igali-zuhaitzik ez zeukaten eta gutxiago barazkirik.

Basoak berak ematen zituen andra-belar, txori-matz, basa-ur, basa-mizpira eta in-txaur batzuk, denetik gutxi. Horregatik, Musakolara jeisten ziren bakoitzean, eta hemengo keixa, okaran, muxika eta sagarrak ikustean, gelduta geratzen ziren, berriz noiz itzuli ez zekitela eta gurekin geroago eta hartu-eman gehiago iristen ahalegintzen ziren. Batez ere Erroxa Zeletaratu zenetik alkartasun handia sortu zen bien artean. Arto-garirik ez zuten eta ogi-tremesik eta ogirik egiten gutxiago. Hortan guk erakutsi genien.

(Jarraituko du)


**ARRIGITAR TIBURTZIO**

**"PAL"**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



**IBARRA**  
**Garajea S.L.**



**EBRO**  
**NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua





**P**

lazako eskolako garaietako erretratu, Frantzisko Urrutia maixu zen garaikoa. 1924ko azaroaren 25ean atera zuten kioskoan, eta maixu ezagunaren inguruan ageri direnak, behetik hasita Bixente Orobengoa, Juan Axpe, San

Pedro, Luziano Aranbarri, Angel Velez de Mendizabal, Fakundo San Pedro, Jose Agirre, Agustin Azkoaga, Xabin Arrieta, Felipe Amozarrain, Frantzisko Gonzalez, Juanito Ayarza, "Arkiteto", Pablo Bolinaga, Juldain, Felix Garai, Felix Uribebarria eta Angel Azkarraga.

Zutik, Zelestino Ezkurre, Pedro Amozarrain, Pedro Bolinaga, Agustin Zabala, Felix Arzamendi, Urria, Juan Jose Gorosabel,

Timoteo Zubizarreta, Jose Mari Iribecampos, Jose Arana, Roman Arenaza, ezezagunak, "Bolante", Marzelino Madinabeitia, Jose Antonio Mendiola, Inazio Juldain, Urrutia maixua, Joxe Fernandez, Franzisko Garai, Arriaran, Juan Mari San Pedro, Mendiola, Iturbe, Inazio Olazabal, Pedro Zumelaga eta Jose Antonio Bengoa.

Alejandro Uribebarria, Jose Mari Uranga, Modesto Otadui, Gabino

Vitoria, Markaide, Pako Bidaburu, Jose Mari Gallastegi, Pablo Zumelaga, Lasaga, Joxe Mari Arsua-ga, Markaide, ezezaguna eta Gregorio Orobengoa.

Sabino Iturriaga, Juan Zabala, Pedro Vitoria, Luziano Oñate, ezezaguna, Inazio Zubillaga, Luzio Velez de Mendizabal, Kandido Garai, Juan Mari Otadui "Etxetxo", Sologaitoa, Markaide "Olia", Donato Arregi, Leandro Agirre eta Juan Pedro Azkoaga.



Mondeo

**M MUGARRI**

*Mondeo*



**Barruko indardun edertasuna**

**Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.**

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65**

**Etxebizitzak**

- Donostian gela bat edo pisua behar da. Tfnoa: 79 47 09.
- Bi oheko gela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Pisua edo logela behar da Arrasaten. Premia dut. Tfnoa: 88 90 59.
- Donostian hiru hilebetetarako pisu konpartitu bat behar dut. Tfnoa: 71 41 21.

**Lana**

- Esperientziadun neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: (945) 44 53 31. Aramaio.
- Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Mailak: ertaina eta altua. Tfnoa: 79 20 64.
- Andra bat prest atarte, bulego eta lokal komertzialak garbiketako. Tfnoa: 77 09 56. Maribi.
- REM eta OHoko klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- Esperientziadun emakumeak umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- Neska euskalduna eta gaztea behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 12 08.
- OHoko zein ingelesezko klase partikularrak ematen dira (maila guztiak). Tfnoa: 79 45 60. Sonia.

• Ordenadoreetan lanak egiten dira. 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.

• Neska gertu dago umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 77 94. M<sup>a</sup> Eugenia.

• Esperientziadun emakumea etxeko lanak egin eta umeak eta/edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 77 05 49.

**Salerosketak**

• Nintendo kotsola, eurokonektorea behar duena, salgai 6.000 PTAan. Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.

• Seat Panda, SS-0408-S, egoera onean salgai. Dei egin denda orduetan 79 86 75 tfnora.

• Bigarren eskuko mobil-home bat erosiko nuke. Tfnoa: 77 04 98.

• Seat 127, BI-K salgai 40.000. Dei egin goizez (945) 27 63 39 tfnora.

• Bost tokiko Adria markako karabana salgai. Bi urte ditu. Berogailu eta guzti. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 84 55.

• Nikon argazki makinarentzako duplikatzaile makroa salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 77 12 28. Jabiartxo.

• Egoera onean dauden Razesa markako bi bizikleta salgai. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 86 72.

• Karabana saldu nahi dut. Adria karabana salgai, 4-5 personentzako, oso egoera onean. Abantzea eta frigorifikoa. Tfnoa: 76 49 14. Gaueko 9etatik aurrera.

• Vespa motorra SS-V salgai. Tfnoa: 79 91 41.

• Opel Corsa City, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzakin. Deitu lan orduetan 94-620 19 18 tfnora. (Gorka)

**Denetarik**

• Erretratuak zein edonolako irudiak egiten dira oleoz. Monterroi aurreko Uxarte gozodendan dago hainbat kuadro ikusgai. Informazio gehiagorako dei egin 79 83 76 tfnora. Pako.

• Musika taldeak behar ditugu lokala denon artean alokatzeko. Tfnoa: 79 13 26.

Lasagari esker onez. Apa Lasaga! Lerro honein bidez Hiru Haundixek hiru egunetan eitten ibili gitzenok eskerrak emun gura dotzugu zure kolaboraziñuegatik. Ah! eta Dukieneko Dionik aho bete emungo dotzu gure konture. Portau haiz! Ibiltariok.

• Apirilaren 18ko goizean, buru marroia eta txuria duen ehiza txakurra galdu zen Larrion. Norbaitek ikusi badu, dei egin dezala mesedez 79 93 52 tfnora.

• Urtebeteko pointer-setter txakurra ematen da. Noblia eta osasuntsua. Tfnoa: 79 41 49.

• Identitateko txapa kataiduna galdu da; Danel izena jartzen du eta 1-5-93 eguna. Arrasateko 79 37 00 telefonora dei egin gaueko 9etatik aurrera, edo ARRASATE PRESSera bertara. Eskertu egingo da.

**Aste Gazte**

**Auzolandegiak**

• Euskal Elkarte Autonomoko plazak astelehentik aurrera (maiatzak 10) erreserba daitezke.

**XXI. Udako euskal unibertsitatea**

• Iruñean, uztailak 19-31. Arloak: artea eta komunikazioa, giza eta gizarte zientziak, hizkuntzalaritza, natur zientziak eta zientzia eta teknika. Astebeteko ikastaroetarako matrikula: 23.000 PTA (16.000 ikasle

edo langabetuentzat). Beka eskatzerik badago.

**Bekak**

• Aste Ederretako alor ezberdinetan aritzeko bekak: espezializazio ikasketetarako, arte sorkuntzarako, sorkuntza bideografikorako, e.a. Baldintzak: ezagupen maila espezializatua eta gaitasuna izatea. Epea: Maiatzak 31.

**Sexualitate tailerrak**

• gazte taldeetako moni-

toreei zuzendutako tailerrak:

a) asteburu batetan, ekainak 4,5,6 intensiboa, azatzen b) asteazkenetan, 6etatik 9etara, maiatzaren 26tik aurrera. Izenemateak Gazte Bulegoan edo HIES Ekimena- ren lokalean.

**Ikastaroak**

• Piraguismo hasierako ikastaroa, Albinako Urtegian. Ikastaro trinkoa. 2 txanda: 1). maiatzak 15,16, 2). maiatzak 22,23. Igeriketa dakiten 16 urtetik gorakoei zuzenduta. Prezioa: 3.000 PTA (2.000 Kirolegiko bazkideentzat)

**“Gure semealabak beste mundu baten barruan daude, beste hizkuntza bat hitz egiten dute. Nik entzuten diet eta mundua nola doan jabetzen naiz, gazteek nola pentsatzen duten.”**

**G. TORRENTE BALLESTER**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

## BERTSOAK

## Muxibar

Eguraldiari buruz asita aurkitzen gera gu marmar, udaberriak negu itxurak dituala eta abar; uda itxurik ez ikustean laister jartzen gera dardar; aspaldi ontan ixilik dago izane gure "Muxibar".

Eguraldiari buruz egina nola dagoen ainbat saio, aura mintzatzen danean zenbait barrez egoten gatzai; aren esanaz inolaz ere ez gera izaten fio; baña mintzatzen danean gera egoten askoz lasaio.

JOSE MANUEL ARRIOLA.



## ZER NAHIAGO?

## Jose Manuel Arriola

- **Bertso bat egiteko gaia?** Esteban Muxibarrek ez du aspaldi eguraldiari buruz hitz egin eta berari zuzendu diot azkena.
- **Oheratu aurretik egiten duzun azken gauza?** Neguan behintzat, hankak berotu.
- **Jainkorik ba da?** Ni baietzean nago.
- **Eskatzen diozu zerbait?** Osasuna, norberarentzat, familiarentzat eta baita herri osoarentzat ere.
- **Berriro jaioko bazina?** Berdin jokatu nuke. Zahartzarora iristen saiatuko nintzateke.
- **Noiz hasten da egun normal bat?** Goizeko 8etan hasi eta arratsaldeko 7etan bukatu.
- **Eugi ala Beloki?** Biak ere gustokoak ditut.
- **Gustokoa duzun bertsolaria?** Hori bai dela zaila. Asko daude onak eta gustoko ditudanak. Momentu honetan, Egaña aukeratuko nuke.
- **Zenbat urtean Udaltzain?** 42 urtean.
- **Arrasate herri lasaia da?** Lehen lasaia zen, baina ez dut aspaldiko berririk.
- **Zerekin damutzen zara?** Ezerekin ere ez naiz damutzen.
- **Zertarako zara trebea?** Mahainguruan nahiko trebea naiz, hortik kanpo, ezertarako ere ez.
- **Lehengo gazteak ala oraingoak?** Lehen baziren gaiztoak, gaur izango dira on batzuk.
- **Bertsoak idatzi ala abestu?** Idaztea askoz ere erosoagoa da niretzat.
- **Familia handia duzu?** Gaurko gehienak ikusi ezker, nahiko handia da, lau seme-alaba ditut eta.
- **Poteatzea gustatzen zaizu?** Ez, lehen nuen lanbidean gaizki ez geratzeagatik, eta gaur andreakin hobeto konpontzen naizelako.
- **Umeak gustoko dituzu?** Bai, lau biloba ditut eta asko gustatzen zait eurekin egotea.



## BAINUJANTZIETAN ESPEZIALISTAK

# NEREA

Erdiko kale, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 13 45



# Valentin Manterola

## Kuadroekin Zumaiatik Monterronera

Arrasaten eta inguruko herrietan egin diren pintura lehiaketako hainbat sari irabazi ditu Zumaiako pintore honek. Hainbat erakusketa egin ditu aspaldi honetan, oraingoa Monterronen.

— Nola definituko zenuke zure estiloa?

— Beno, lehenik eta behin esan behar da beti gustatu izan zaidala pintatzea, txikitatik. Pintore gehienak bezala, autodidakta izan naiz eta urte hauetan estilo askotan pintatu dut. Hasiera batean pintatzen hasten nintzen eta irtetzen zenarekin pozik geratzen nintzen. Eibarren antolatu zen pintura lehiaketa batera aurkeztu nintzen lehendabizi eta bertan lortu nuen neure lehen saria, beharbada beste toki guztietan aurkeztera animatu ninduen. Ordutik, lehiaketa askotan aurkeztu naiz eta sari asko irabazi dut: Berriz, Bermeo, Galdakao, Zarautz, Bergara, Aramaio, eta baita Arrasaten ere beste sari bat irabazi nuen. Gaur egun desberdina da, pintura, kuadro bakoitzean estilo konkretua lortu nahi izaten dut ez irtetzen dena: kolore gehiago, marrazki gehiago... begia jartzen dudana tokian, bertan jartzen dut pintzela ere, nahiz eta ez izan oso erraza.



— Erakusketa asko egin dituz, ezta?

— Bai, toki askotan aurkeztu ditut nire kuadroak: Madrilen, inguruko herrietan eta oraingo honetan, Arrasaten. Nire ustez pintore batek erakutsi egin behar ditu bere kuadroak eta horretarako ate batzuk jo behar dira. Esate baterako, Madrilen erakus-

.....

**Ondo pintatzen jakitea bezain inportantea da asko pintatzea, eta bakoitzaren kuadroak erakusketa desberdinetan erakustea**

keta bat egitea oso zaila da baina maila batean beharrezkoa. Arrasaten 400 personak ikusten badute erakusketa hau, Zumaian 40k, Madrilen 40.000 lagun pasatzen dira erakusketatik. Bestalde, ondo pintatzen jakitea bezain inportantea da asko pintatzea; hau da, erakusketa desberdinak egiteko kuadro asko pintatzea beharrezkoa da, lan asko egin behar da pinturatik bizi izateko.

— Zure kuadroek errealityatea isladatzen dute?

— Bai, eguneroko gauzak aukeratzen ditut nire kuadroak egiteko: loreak, aterkinak, itsasoa, Arabako paisaiak... Gainera, kolore aldetik, urdina nire kuadro gehienetan agertzen da eta baita beste kolore alaiak ere. Maila honetan aldatu egin naiz, azken etapa honetan askoz ere kolore gehiago sartu dut, kolore asko eta tonu desberdinak gainera, nire gustoko koloreak aukeratzen ditut: urdina, grisa, morea... Gai aldetik, itsasoa da gehien agertzen dena nire kuadroetan, beharbada Zumaian bizi naizelako. Pintatzeko modua ere aldatu egin dut, gaur egun nire etxean dudana estudioan pintatzen dut, lasaiago. Hori bai, kuadro bakoitza sesio batean egiten dut beti.

### Euskadi irratiko irratinobela saria

Euskadi irratia irratinobela lehiaketa antolatzen du euskarazko irratinobela berriak sortzeko. Nahi duten euskal idazle guztiek parte hartu ahal izango dute. 15/20 minutu bitarteko iraupeneko 50 kapituluko irratinobela baterako argumentuaren sinopsia bidali beharko du. Argudioa, pertsonaien karakterizazioa, gidio teknikoa, elkarrizketak... hartuko dira kontutan. Datorren maiatzaren 21a baino lehen bidali beharko dira lan hauek, Euskadi irratira. Irabazleak 1.500.000 PTako dirusia irabaziko du.

### San Juanetako kartel lehiaketa

San Juanetako kartel lehiaketa zabalik dago jandantik. Datorren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira kartel guztiak Udako Kultura Departamentuan. Arrasaten bizi edo erroldatutako edozeinek har dezake parte eta teknika libre erabiliz, "1993 San Juan Jaiak Arrasate" testua eraman beharko dute kartel guztiek. 50x70ko neurria errespetatu beharko da. Irabazleak 100.000 PTako saria jasoko du.

**Begoña**

lurrindegia

Drageria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

.....

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

.....



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78

## ASTRONOMIA


IZARREN  
HAUTSA (II)

Gero diZdira desagertzen denean, normalean leherketak sortutako hautsa ikusteko teleskopioa erabili behar da. Argazkian ikusten da 1987an SN 1987an deitutako supernobaren leherketaren ondorioz, hautsez osatutako eraztuna. Eraztun honen diametroa gure eguzki sistema baino askoz handiago da. Argazkia, Hubble teleskopioarekin eginda dago.

Leherketa baino lehenago izarraren osagaiak hidrogeno eta helioa izaten dira batez ere, baina gero leherketaren poderioz, beste elementu astunagoak sortzen dira, karbonoa, oxigenoa etab. Hain zuzen ere bizitza pizteko behar diren elementu kimikoak.

Azken finean, denok gara supernoba baten semealabak sentzu orokor batean. Anasazi artistak, izar diZdiratsu haren irudiaren alboan, bere eskua irudia ere tailatu zuen, bere sinadura.

ERNEST BORN



Debako Arte Eskolan egiten ari dira San Juanetarako dragoia.

## Dragoia sua dariola, eta alkatea dantzan!

**Aurtengo** San Juan bezperan, 10 metro luze eta 3,5 altuerako dragoi bat jaitsiko da Arrasateko kaleetara San Juan sua ixotzera, inguruan ehundik gora musikari eta dantzari dituela, doinu eta dantza guttiz berriekin. Eta nor da dantzari nagusia? Alkatea bera!

Ikuskizun berri eta harri-garri honen sorburuan, Arrasate Musikaleko Jose Ramon Vitoria dago, baina inguruan makina bat mondrauetar dabil lanean. Ikuskizunaren ardatza, Erremintari Dantza izango da, eta horrekin batera, dragoia. Herriaren historiaren sinboloak bildu nahi izan dituzte, jaietarako ikuskari handi bat egiteko, eta ahal bada, tradizioa sortzeko. Gai-


nera, eskuliburu bat ere kaleratuko dute, jasotako dokumentazio eta historia gutzia bilduz.

Dantzariak erremintarien gisan jantziko dira, neska eta mutilak, eta kalejiran jaitsiko dira, 23 iluntzean, Herriko Enparantzara. Bertan, ingurutxo bat eta polka bat dantzatzuko dira suaren inguruan. Musika orijinala da (Vitoria-rena), eta dantzak ere bai: Lore Gazteak taldekoak ari dira hauek sortzen Jose Ramon Perezen ardurapean. Kalejiran ez da doinurik faltako: erremintariak mailuka eta auspoekin, txistulari, albokalari eta gaiteroak izango dira, Arrasate Musikaleko metal sekzioa, eta bi tinbal handi

ere bai, martxa markatzeko, galerianoekin bezala. Ikuskizuna ekainaren 23 eta 26an ikusiko dugu.

Konpartsan lagungarri, erraldoi eta kilikiak, eta dragoia. Monstruoaren gorputza, oraintxe ari dira eraikitzen Debako Arte Eskolan, Haritz Solupe arrasatear gaztearen diseinuari esker. Egurrezko estrukturaz, dragoi handi hau lau gizonek erabiliko dute barrutik, eta kea botako du ahotik, sua ez bada (ikerketa teknikoetan ari dira horretarako). Dragoia, herriarena izango da aurrerantzean, beste jai eta ikuskizun batzuetan erabili ahal izango da. Herriko alegia zaharrak, gorputza hartu du berriro, beraz.

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



### ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

### EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24  
ARRASATE  
TFNOA: 79 19 71

JOSTEKO



OIHALAK


Errekabarren, 20  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 80 90

· AIPUA ·

*“Lagunak meloiaik bezalakoak dira: berrogeita hamar probatu behar bat ona aurkitzeko”*

*Claude Hermet*

· JEROGLIFIKOA ·



Bizkaiko herria.

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7
8				9		
10						
11		12			13	
14		15			16	
17				18		
19			20			

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Sebero Altube plazatik Otalora kalera. 6. Esnatu aurretik. 8. Altzoan. 10. Jausi. 11. Sodioa. 12. Hortzak finkatzen ditu. 13. (Ald.) Bizkaiko udala. 14. Hitzarmen. 16. Torioa. 17. Arrantzalearen ogibidea. 19. Bi pare. 20. Anestesiko gisa erabiltzen da.

**Bertikalak** 1. Ez zikintzeko, gaineko jantzi arina. 2. Gaineko jantzi handi eta sendoa. 3. Eguneroko jangaia. 4. Txano. 5. Une. 6. Musika nota. 7. Behartsu. 9. (Ald.) Udalerrri Euskaldunak. 13. Bizkaralde. 15. (Ald.) Itsasoan ugaria. 18. Te bikoitza.

· HOROSKOPOA ·

**Aries** Kolore orlegiak zorte ona ekarriko dizu.

**Taurus** Ez zaitez egon besteek zer esaten dutenaren zain.

**Gemini** Orain artean egon zaren hodeitik jeitsi beharko duz.

**Cancer** Ez zera zure jokuaz jabetzen baina, kontuz ibili behar duzu.

**Leo** Iritsi zaizu zure trebetasunak adierazteko momentua.

**Virgo** Zure langun baten laguntza eskatuko dizu. Ez gero ukatu.

**Libra** Ez hartu serioski nagusiak agintzen dizutena. Paso egin.

**Scorpio** Zintzo jokatu eta ez eman lan larregi zure gibelari.

**Sagitarious** Zure aldamenean dagoen norbaitek zutaz asko pentsatzen du.

**Capricorn** Aldaketa egoeran zaude-nez, eskatu lagunari iritzia.

**Aquarius** Gabeko irteerak murriztu beharko dituzu.

**Piscis** Bi aldiz pentsatu edozein gauza egin aurretik.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

**Mamografia**

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• JONE LASAGABASTERREN GOMENDIOA •



Irakurtzea asko gustatzen bide zaio Joneri, eta hori da gaur gomendatu nahi diguna. Patrick Süskind-en "El Perfume" liburua oso interesgarria iruditu zaio, atsegi-na, hasieran sartzea kosta arren, hasiera astun samarra egin zitzaidan arren". Gehien gustatzen zaizkionak beldurrezkoak eta misteriozko liburuak dira, eta gauean eta arratsaldez umezain dabilenean ere hartzen du astia. Orainago irakurri duena, Iñaki Mendi-gurenen "Haltzak badu bihotzik" da, eta asko gustatu zaio.

• PROGRAMAZIOA •



- 9 Igandea**  
9.30 Monterock  
10 Mondragol
- 10 Astelehena**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Mondragol  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Mondra Sport  
10.00 Asteko Zinea:  
Wanda izeneko arraina
- 11 Asteartea**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Mondra Sport  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Bakarka  
10.00 Asteko Zinea:  
Wanda izeneko arraina.
- 12 Asteazkena**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bakarka  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Tertulixan.  
10.00 Asteko Zinea:  
Wanda izeneko arraina
- 13 Osteguna**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Tertulixan  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 ATBketan.  
10.00 Asteko Zinea:  
Wanda izeneko arraina.
- 14 Ostirala**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 ATBketan  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Monterock.  
10.00 Asteko Zinea:  
Wanda izeneko arraina

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

Sondika.  
JEROGIFIKOA  
11.  
Ondehar. 9. Eu. 13. Aize. 15. An. 18.  
3. Ogi. 4. Kaloria. 5. Aldine. 6. La. 7.  
Bortakalak 1. Amantel. 2. Zamarrta.  
20. Eicr.  
Tran. 16. Th. 17. Arrantza. 19. Lau.  
Amidu. 11. Na. 12. O. 13. Ae. 14.  
Hortontalak 1. Azoka. 6. Lo. 10.  
GURUTZEGRAMA

**mokasin**  
Zapatak eta osagarriak  
Kontzeziño. 6  
Tfnoa: 76 06 78  
ARRASATE

**ITSASKI**  
ARRANDEGIA  
Arrain freskoa eta jaki izoztuak  
Urube Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

**LIPOESKULTURA**  
eta  
**ZELULOLIPOLISIA**  
Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.  
**ESTETIKA KLINIKA**  
Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)  
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

**Monte taberna**  
Maalako errabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56



Etxeko ekipamendu osoa

# a, eme... interiores

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE

